

Durango Udalaren


Euskararen Erabilera Indarberritu eta

Normalizatzeko Plana

2023-2027



DURANGO
Udala • Ayuntamiento



Kudeaketaren plangintzaldia

Aurkibidea

<u>1. Atarikoa</u>	5
<u>2. Orain arteko ibilbidea</u>	6
<u>3. Euskararen Erabilera Planak eragindako udal-atalak</u>	7
<u>4. Eragin-epea</u>	8
<u>5. Hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-datak</u>	8
<u>6. Bisioa, euskararen indarberritzeaz</u>	9
<u>7. Plan estrategikoa</u>	10
-Erronkak	
-Diagnostiko eta aurreikuspen kuantitatiboak	
-Diagnostiko kualitatiboa	
-Helburu estrategikoak	
-Kudeaketa-planeko ekintzak	
*Goian jasotako atal horiek guztiak arlo eta adierazle bakoitzeko garatu dira.	
<u>8. Ekintzen kronograma, urtez urte</u>	58
<u>9. Planaren jarraipena</u>	61
<u>10. Informazio-sarea</u>	63

1. Atarikoa

Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Plangintzaldia amaituta (2018-2022), VII. Plangintzaldia diseinatu eta kudeatzeko metodologia berria sortu du Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (hemendik aurrera, HPS), eta toki-erakundeok ere tresna berarekin jardutera gonbidatu gaitu. Udalean euskarak duen egoeraren argazki objektibo bat ateratzea da gakoa, zenbakiekin kuantifikatua eta balorazio kualitatiboaz osatzen dena, baita Bikain ziurtagiriarekin lerrokatuta dagoena ere.

HPSk toki-erakundeon eskura jarritako Saregin aplikazio informatikoaren bidez, 2024ko maiatzean zehar Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako 203 langileri bidali zitzairen diagnostikorako galdetegia, eta 163 erantzun jaso ziren (% 80). Horri esker, 2023-2027 urte arterako Durangoko Udalaren Euskara Planaren oinarri izango den egoera orokorra ezagutu ahal izan dugu. Horiek aintzat hartuta, hurrengo urratsa izan da datu horien gaineko ebaluazio kualitatiboa egitea: ondo egindakoak azpimarratuz eta hobetzeko atalak identifikatuz. Horrek guztiak osatu du Durangoko Udalaren euskararen kudeaketa eta erabileraren diagnostikoa, oinarri eta zutabe izan dena eskuartean duzun plan estrategiko hau diseinatzeko: bisioa, erronkak, helburu estrategikoak, adierazleak, helburu kuantitatibo eta kualitatiboak, etab.

Ondoren, plan estrategiko honek lur hartuko duen ekintza-plana adostea etorri da, osasuntsu dauden esparruak bere horretan mantentzeko eta hobetzeko tartearen dutenetan jauzi kualitatiboa eman ahal izateko. Plan estrategikoan era orokorragoan eta kudeaketa-planean zehaztasun handiagoz jaso bezala, euskara planaren garapenak beste agiri batzuen lanketa edota eguneraketa ekarriko du berekin, hala nola Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Araudia, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, itzulpen-irizpideak, kontratazio eta dirulaguntzetako hizkuntza-klausulak, prestakuntza-irizpideak, langile berrientzako harrera-jarraibideak, euskararen erabileraren diagnostikoa elikatzen joateko prozedura, etab. Hauek guztiak Euskararen Erabilera Planari eransten joango gatzazkio. Beraz, eskuartean duzun dokumentu hau irekia eta malgu izateko helburuarekin idatzi da.

2. Orain arteko ibilbidea

UDALAZ GAINDIKO ARAUDIA

Espainiako Konstituzioa 1978

Autonomia Estatutua 1979

10/1982 Euskararen Legea 1982

I. PLANGINTZALDIA: 1990-1995

Hizkuntza Erregionalen Europako Karta 1992

II. PLANGINTZALDIA: 1997-2002

86/97 Dekretua, Herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzekoa 1997

III. PLANGINTZALDIA: 2003-2007

2003

IV. PLANGINTZALDIA: 2008-2012

2008

V. PLANGINTZALDIA: 2013-2017

2013

Hizkuntza eskubideak bermatzeko protokoloaren udal garapena

2016

2/2016 Toki erakundeei buruzko Legea

2017

VI. PLANGINTZALDIA: 2018-2023

2018

179/2019 Dekretua, toki erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa (Toki Legearen garapena)

2019

4/2023 LEGEA, apirilaren 27koa, kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuarena

2023

97/2023 DEKRETUA, ekainaren 27koa, erakunde publiko eta pribatuen jardueran eta kudeaketan euskarak duen garapen-maila ebaluatzeko, egiaztatzeko eta aitortzeko sistema arautzen duena.

2024

19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.

2025

UDAL ESKUMENEKO ARAUDIA



1. EBPN: 2005-2008

1. ERABILERA PLANA: 2008-2012
(Udalbatza: 2008/12/18an onartua)

2. EBPN 2009-2012
(Udalbatza: 2009/11/12an onartua)

Euskararen Udal Araudia (Udalbatza: 2010/07/20an onartua)

2. ERABILERA PLANA: 2013-2017
(Udalbatza: 2013/02/26an onartua)

3. EBPN 2013-2017

3. ERABILERA PLANA: 2019-2022
(Udalbatza: 2019/11/27an onartua)

4. ESEP 2019-2022

5. AROA 2025-2029
(Udalbatza: 2024/11/27an onartua)

Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak

Euskararen Udal Araudiaren eguneraketa 2023
(Udalbatza: 2023/02/22an onartua)

4. ERABILERA PLANA: 2023-2027
Onartzeke

3. Euskararen Erabilera Planak eragindako udal-atalak

Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak ondorengo eragin-eremua aurreikusten du planen aplikaziorako:

2. artikulua.– Aplikazio-eremu subjektiboa.

1.– Dekretu honen xedapenak euskal sektore publikoaren zerbitzuko langile funtzionarioei aplikatuko zaizkie, bai eta haren zerbitzuko lan-kontratuko langileei ere, hala dagokienean. Dekretu honen ondorioetarako, hauek sartzen dira euskal sektore publikoan:

[...]

c) Toki-administrazioak, haien administrazio instituzionala eta aipaturiko administrazio publikoetako edozeinen mende dauden eta nortasun juridiko propioa duten ente instrumentalak”.

Horretan oinarrituta, hauek dira Durangoko Udalaren Euskararen Erabilera Indarberritu eta Normalizatzeko Plan Estrategikoan sartuko diren udal-atalak:

a) Arduradun politikoak

b) Udal-sail eta atalak:

- Zerbitzu Orokorrak
- Informatika Atala
- Giza Baliabideak
- Herritarren Arretarako Zerbitzua
- Gizarte Ekintza (Adinekoak, Enplegua, Immigrazioa eta Kooperazioa)
- Berdintasun Saila
- Kultur Ekintza (Euskara, Gazteria, Hezkuntza, Jaiak, Kultura eta Kirolak)
- Turismo Bulegoa
- Zerbitzu Ekonomikoak
- Bulego Teknikoa
- Udaltzaingoa

c) Erakunde autonomoak:

- Erakunde Autonomoen koordinazioa
- Bartolome Ertzilla Musika Eskola
- Astarloa Kulturgintza
- Durango Kirolak
- Durangoko Udal Euskaltegia

- d) Enpresa publikoak:
Durango Eraikitzen

4. Eragin-epea

Durangoko Udalaren Euskararen Erabilera Indarberritu eta Normalizatzeko Plan Estrategikoaren egiazko eragin-epea honakoa izango da: 2026ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2027ko abenduaren 31n bukatuko da, hau da, Euskal Sektore Publikoko euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren VII. plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

VII. plangintzaldia 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean egon bada ere, Durangoko Udalak eta bere erakunde autonomoek aurreko plangintzaldikoa luzatuta izan dute 2025. urte amaierara arte, plan berria lantzen ibili bitartean. Hori dela eta, plan berriak VII. plangintzaldiko epearekin bat egiten badu ere, egiazki 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera egongo da indarrean.

5. Udal-langileen hizkuntza-eskakizun eta derrigortasun-datei buruzko datu xeheak

Ondorengo taulan ageri da Durangoko Udaleko langileen hizkuntza-eskakizunen egiaztatze-maila zertan den. Nolanahi ere, aitortu beharra dago egun indarrean den azken lanpostu-zerrendaren arabera datuak direla hauek (2022. urtekoak), gaur-gaurkoz ezin izan baita datu eguneratuagorik lortu:

Lanpostuak	Hizkuntza-derrigortasuna duten lanpostuak	Egiaztatuta	1HE	2HE	3HE	4HE	Egiaztatu barik	Salbuetsita ¹	Hutsik ²
254	207	185	13	58	83	16	5	10	38

¹. Plangintzaldi bakoitzaren hasieran 45 urte beteta dituzten langileak salbuetsita daude, 10 guztira.

². Lanpostu hutsek, 38k, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna iraungia dute; beraz, lanpostuok hornitzen direnean, hizkuntza-eskakizun egiaztatuen kopurua igo egingo da nabarmen: $185 + 38 = 223$

Koadroan jasotzen ez bada ere, 27 langileek euren lanpostuari dagokien hizkuntza eskakizuna baino altuagoa dute egiaztatuta.

*Datu eguneratuak lortu ahala, hauek egokituko dira; izan ere, plan estrategiko honi lotutako ekintza-planean egin beharreko jardueratzat jaso dugu lanketa hori.

6. Durangoko Udalaren bisioa, euskararen indarberritzeaz

Alde batetik, herritarren hizkuntza-eskubideak % 100 bermatuko ditu Durangoko Udalak, eta euskararen eskaintza aktiboa egingo du. Bestetik, Udala euskaldunagoa izango da, eta euskararen arnagune izateko aukera emango die bertan lan egiten dutenei. Hirugarrenik, euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketan txertatuta egongo da.



7. Plan estrategikoa

PLAN ESTRATEGIKOAREN EGITURA



DIAGNOSTIKORAKO ERABILITAKO ADIERAZLEEN TAULA ETA LORTUTAKO EMAITZAK

KUDEAKETA	
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	
Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	% 0
Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	% 50
Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).	% 25
LIDERGOA	
Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	% 90,80
Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	% 75
Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.	% 25
LANGILEAK	
Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	% 59,20
Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	% 79,40
Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.	% 77,10
Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.	% 36,90
Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.	% 54,40
HIZKUNTZA-GAITASUNA	
Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.	% 80,60
Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	% 75,60
Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	%100
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA	

Durangoko Udalean Euskararen Erabilera Indarberritu eta Normalizatzeko Plan Estrategikoa
2023-2027

Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.	% 75
Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.	% 75
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	
Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	% 25
Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	% 100
Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari	% 25
Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	% 25
ERABILERA	
ZERBITZU-HIZKUNTZA	
IRUDIA	
Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.	% 88
Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.	% 66
Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	% 60
Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.	% 90
HERRITARREKIKO HARREMANAK	
Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	% 71,10
Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	% 89,30
Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	% 55,00
Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 100,00
Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	% 100,00
Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.	% 54,40
Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.	% 70
LAN-HIZKUNTZA	
BARNE-HARREMANAK	
Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	% 25,60
Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	% 55,20
Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.	% 53,30
Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	%74,93
Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administrazioen barne izapideak, betiere hartzaila ezaguna ez den kasuetan.	% 20
Xedapen orokorrak euskaraz gutxienez lantzen dira izapidetze-prozesu osoan zehar.	% 10
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.	% 73,53
KANPO-HARREMANAK	
Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	% 65,30
Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	%100
Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana.	% 45,80
Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 60
PRESTAKUNTZA	
Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	% 20
Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra.	% 37
Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.	% 75
BALIABIDE INFORMATIKOAK	
Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	% 32,50
Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.	% 35,90
SORTZE-HIZKUNTZA	
Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	% 51

1. ardatza: KUDEAKETA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 53,86	% 86,88	% 33,02

EUSKARAREN KUDEAKETA SISTEMATIZATZEARI DAGOZKION ERRONKAK

- Euskararen erabilera Durangoko Udalaren kudeaketa orokorrean txertatzeko neurri sendoak hartuko dira, ezinbesteko zeharlerrotasuna bermatzeko. Hau da, euskararen erabileraren indarberritze-prozesuak udal-politika guztiak zipriztintzeko sistematika ezarriko da Durangoko Udalean.
- Horretarako, udal-langile eta ordezkari guztien parte-hartze aktiboa sustatuko da, hauek prozesuaren erdigunean jarritz, informatuz, ahaldunduz eta bakoitzaren konpromisoak bultzatuz.
- Euskararen erabilera Udalean eta Udalaz gaindi sustatzeko estrategia herritarrei eta gainerako interes-taldeei jakinaraziko zaie, eragile guztien arteko sinergiak baliatzeko eta, horrela, Durango euskaraz bizitzea ahalbidetuko duen herri bilatzeko.
- Zeharlerrotasunean oinarritutako kudeaketa-sistema berriaren testuinguruan, udal-sail eta atalak Bikain ebaluaziora aurkezteko aukerak aztertuko dira.

1.0.1.arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 30	% 75	% 45

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak

Egoera. Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoen kudeaketa, oro har, eta Durangoko Udalaren euskararen erabileraren normalizazio-prozesuaren kudeaketa, zehazki, euskara teknikari eta dinamizatzailen ardurapean egon dira gehienbat. Hau da, Durangoko Udalak ez du orain arte sortu berau diseinatu, kudeatu eta jarraipena egiteko sistema egituraturik.

Egindakoak. 2007. urtetik izan ditu abian Durangoko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoak, eta plangintzaldi desberdinetan zehar parte hartu izan du euskararen erabileraren normalizazio-prozesuan, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) ezarritako bide-orriari jarraiki.

Abian izan duen azken plana 2018-2022 urte-tarteari dagokiona izan da, Udalean euskarak duen egoeraren argazki objektibo bat ateratzea izan zuena gako, zenbakiekin kuantifikatua eta balorazio kualitatiboaz osatua, baita Bikain ziurtagiriarekin lerrokatuta egongo dena ere.

Orain arte egindakoen artean, honakoak dira azpimarragarrienak:

- Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Araudia (2023)
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak
- Itzulpen-, zuzenketa- eta trebakuntza-aukerak zabaltzea udal-langileentzat
- Hizkuntza-harrera egitea langile berriei

Indarguneak. Euskararen erabilera sustatzeko normalizazio-prozesua ez da auzi berria Durangoko Udalarentzat, eta ez da txikia orain arte egindako lana. Hortaz, ez da hutsetik abiatu beharreko lana inondik eta inora ere: egindakotik ikasi, eta aurrera begirako prozesu eraginkorra diseinatu eta kudeatzea errazten du horrek.

Zer hobetuak. Orain arte egindako lana berrikusi; ondo egindakoak mantendu eta indartu; eta, eskasago egindako horiek konpontzeko eta onbidean jartzeko saiakera egin behar du Durangoko Udalak. Horretarako, ezinbestekoa da prozesu osoaren ardura izango duen egitura eragile eraginkor eta sendoa osatzea, eta euskararen erabileraren kudeaketa Udalaren kudeaketa orokorrean txertatzeko ahalegin berezia egitea.

Helburu estrategikoak:

- Durangoko Udalak Euskararen Erabilera Indarberritu eta Normalizatzeko bere plan estrategikoa eta honen eraginpeko kudeaketa-planak diseinatu, kudeatu eta jarraipena egiteko egitura eragilea osatuko du.
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak egokituko ditu, plan estrategikoan jasotakoarekin bat etorritz eta VII. plangintzaldiko gidalerroak oinarri hartuta; bereziki, kudeaketari dagokion atala indartuko du.
- Hizkuntza-irizpideen betetze-mailari jarraipen sistematikoa egingo dion informazio-sarea osatuko du Udalak.
- Durangoko Udalak urrats sendoak emango ditu bere lan-jardun eta politika publikoek euskararen erabileran izan dezaketen eragina neurtu eta horretan positiboki eragiteko neurriak hartzeko.

	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
1.0.1.1._Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	% 0	% 75	% 75	Durangoko Udalak zeharkako izaera duen Euskararen Egitura Eragilea osatuko du, erabakitzeko ahalmena duena, baita operatibitate-maila egokia ere.
1.0.1.2._ Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	% 50	% 75	% 25	- Plangintzaldiaren erdian eta amaieran, gutxienez, plan estrategikoa ebaluatzeaz gain, kudeaketa-planaren jarraipena egingo du Udalak, ekintzen eraginkortasuna ezagutu eta egokitzapenak egiteko. - Udal-arautegi eta hizkuntza-irizpideak eguneratuko dira, plan estrategiko berrira egokitzeko.

				- Sailaren arabera esku-hartze individualizatuak egingo dira, Bikain ebaluazioa eskatzeko plangintza zehazteko.
1.0.1.3._ Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).	% 25	% 75	% 50	Sistematikoki aztertuko da eta neurriak txertatuko dira indarrean dauden alorreko arauak behartutako proiektu eta arauetan hizkuntza-inpaktua neurtzeko eta neurri zuzentzaileak aplikatzeko (Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa). Horrez gain, poliki-poliki, neurriak hartuko dira bestelako lan-jardun eta politika publiko guztietan hizkuntza-inpaktua kontuan hartu eta neurri zuzentzaileak aplika daitezzen.

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
1.0.1.1.	A. <u>Euskararen Egitura Eragilea osatu.</u> Egitura horretan parte hartuko dute udal-sail bakoitzeko arduradun teknikoek, baita alkateak, Herrigintzako alkateordeak eta Euskara zinegotziak ere. Gutxienez, urtean lautan bilduko dira (hiru hilean behin): urtarrila, apirila, iraila eta abendua. Bertan plan estrategiko, urteko kudeaketa-planak, hizkuntza-irizpideak eta beharrezkotzat jotzen diren bestelako agiriak sortu, ontzat eman, kudeatu eta jarraipen sistematikoa egingo zaie. Horrez gain, bertan hartutako erabakiak gainontzeko langile eta ordezkariak komunikatzeko ardura izango du talde eragile horrek.	1. Euskararen Egitura Eragilearen osaera zirriboratu. 2. Euskararen Egitura Eragilean parte hartzeko informazioa zabaldu eta gonbidapenak egin. 3. Euskararen Egitura Eragilea osatu. 4. Euskararen Egitura Eragilearen osaera eta funtzionamendua arautzen duen dekretua sortu eta onartu.	Euskararen Egitura Eragileko kideak	Euskara Saila Euskara zinegotzia	x		
1.0.1.2.	B. <u>Adostutako plan estrategikoaren, kudeaketa-planen eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egin.</u> Euskararen Egitura Eragilea, urtean lautan bilduko da, gutxienez (hiru hilean behin): urtarrila, apirila, iraila eta abendua. Bertan plan estrategiko, urteko kudeaketa-plan, hizkuntza-irizpide eta	1. Euskararen Egitura Eragilearen antolaketa eta funtzionamendu eraginkorra adostu eta bermatu.	Euskararen Egitura Eragileko kideak	Euskararen Egitura Eragileko kideak	x	x	x

	beharrezkotzat jotzen diren bestelako agiriak sortu, ontzat eman, kudeatu eta jarraipen sistematikoa egingo zaie.	2. Jarraipen sistematikoa egiteko tresna eta baliabide egokiak sortu. 3. Etengabe berrikusi antolaketaren eraginkortasuna, hobetzekoak identifikatze aldera.	Langile eta ordezkari guztiak				
1.0.1.2.	C. Durangoko Udalaren Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak eta Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Araudia egokitu eta eguneratu. Durangoko Udalak onartuta ditu dagoeneko bere hizkuntza-irizpideak eta euskararen erabilera sustatzeko udal-araudia. Hala izanda ere, ezinbestekoak diren tresna hauek plan estrategiko berrira egokituko dira.	1. Durangoko Udalak indarrean dituen hizkuntza-irizpideak eta udal-araudia aztertu eta plangintzaldi berriko beharretara egokitu. 2. Egokitutako dokumentuen zabalkunde egokia planifikatu eta aurrera eraman.	Langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragileko kideak		X	
1.0.1.2.	D. Udal-sailetan esku-hartze indibidualizatuak egin: sail eta atalen araberako egoerak aztertu, konpromisoak adostu eta lanketak egiteko. Plan estrategiko eta kudeaketa-plan honetan zehaztutako ekintza gehienak, oro har, udal-mailan garatzekoak dira. Hori hala izanda ere, komeni da	1. Sailez saileko edota atalez ataleko egoeren azterketa egin. 2. Sailez saileko edota atalez ataleko bilerak egiteko kronograma adostu.	Langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragileko kideak			X

	lanketa batzuk sail zein atal mailan ere aurrera eramatea. Beraz, horiek ere inplementatzeko, sail eta atalen araberako datuen azterketa egingo dugu, ekimen indibidualizatuagoak planifikatu eta garatzeko. Ekimen honek oso informazio baliagarria emango digu Bikain ebaluazioa jasotzeko egoera onenean dauden sailak identifikatu eta Udala apurka-apurka ebaluazio eta egiaztatze-sistema horretan sartzeko.	3. Sailez saileko edota atalez ataleko bilerak egin. 4. Bilera horietan hartutako erabakiak aurrera eramane. 5. Aztertu zein sail edota atal dagoen egoerarik onenean Bikain ebaluazioa jasotzeko. 6. Bikain ebaluaziorako sail eta atal posibleen kronograma adostu eta aurrera eramane.					
1.0.1.2.	E. Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileen lanpostu-zerrendako datuak eguneratu: hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak, hizkuntza-gaitasuna, etab. Durangoko Udalak onartu eta argitaratuta duen azken lanpostu-zerrenda 2022 urtekoa da. Euskararen Erabilera Plana eraginkortasunez garatzeko, ezinbestekoa da langileen eginkizun, hizkuntza-egiaztapen eta gaitasunari buruzko informazio eguneratua eskuarteaz izatea. Hortaz, datu horiek eskuratze aldera, komeni da indarrean dagoena berrikusi, osatu eta balizko egokitzapenak	1. Indarrean den lanpostu-zerrenda aztertu eta beharrezko informazioa osatu. 2. Balizko egokitzapenak aztertu, eta aurrera eramateko proposamena landu. 3. HALZEKU aplikazioa elikatu, eta egunean mantendu.	Langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Giza Baliabideak Euskararen Egitura Eragileko kideak	X	X	X

	egitea. Lan hori Giza Baliabideen Sailarekin batera egingo da. Horrez gain, kontuan izan behar dugu HPSk aplikazio informatiko berria, HALZSKU, jarri duela Euskal Sektore Publikoko administrazioen esku datu horiek guztiak erregistratuta eta eguneratuta izateko.						
1.0.1.3.	F. <u>Aholkularitza eta laguntza teknikoaren eman proiektuetako hizkuntza-inpaktua neurtzeko</u>: Durangoko Udaren ardurapeko egitasmo, zerbitzu eta jardunbideek euskararen indarberritzean duten eragina neurtu eta neurri zuzentzaileak inplementatu. Politika publikoak ez dira politika neutroak. Horrek esan nahi du erakunde publikoetatik zeharlerrotasunaren aterkipean orain arte nagusiki landu izan diren alderdiez gain (lan-prozesuak euskalduntzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzua euskaraz eskaintzea eta horren guztiaren ardura eta kudeaketa erakundearen erantzukizun bihurtzea), beharrezkoa dela erakundeetako atal guztiek diseinatzeko eta garatzen dituzten jarduerak eta politika publikoetan begirada pausatzea. Ezinbestekoa da aztertzea politika publiko horien edukien bidez nola eragiten dugun euskararen indarberritzean, hau da, hizkuntzen arteko botere-	7. Legez araututako lan-jardunen hizkuntza-inpaktua neurtzen hasi: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE). 8. Apurka-apurka gainerako udal zerbitzu eta egitasmo guztietara jauzi egin. 9. Beharrezkotzat jotzen diren tresna eta baliabideak sortu, eragindako sailekin elkarlanean. 10. Hizkuntza-inpaktuaren azterketa Udalean sistematizatu.	Durangoko herritarrak Langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Eragindako sailak		X	X

	harremana mantendu, indartu edo murrizten dugun ezagutu eta neurri zuzentzaileak ezartzeko. Politika eta jarduera publiko guztien norabidean eragiteak esan nahi du horiek guztiak lerratu behar direla euskara indarberritzeko helburuarekin. Ondorioz, ez da nahikoa erakunde publikoek euskal hiztunak ez diskriminatzea edo horien hizkuntza-eskubideak bermatzea. Beharrezkoa da erakunde publikoek euskararen indarberritzea aktiboki bultzatzea eta politika guztiak helburu horrekin lerratzea.						
--	---	--	--	--	--	--	--

1.0.2.arloa: LIDERGOA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 65,53	% 92,50	% 26,97

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak

Egoera. 2007tik aurrera izan ditu abian euskara planak Durangoko Udalak, eta gaur egunerainoko tarte luze horretan zehar, plan horiek udal euskara teknikariak gidatu ditu gehienbat, kanpo enpresa bateko dinamizatzailen laguntza teknikoarekin. Hots, udal egituraren barneko arduradun tekniko eta politikoen parte-hartzea egon izan da, baina inolaz ere sistematizatuta eta Udalaren barne-antolaketan zehaztuta.

Egindakoak. Durangoko Udaleko arduradun politiko eta teknikoek badute ezagutza erakunde publikoetan garatzen ari den euskararen normalizazio-prozesuaz, eta ezagutzen dituzte Udalak onartutako Euskararen Udal Araudia eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak. Orain arte ez da txikia izan hauetan jasotakoa betetzeko ahalegina eta lana, nahiz eta sistematizatuta egon ez.

Indarguneak. Udal arduradun politiko eta teknikoek badute azaleko ezagutza euskararen erabileraren normalizazio-prozesuaz, eta jakitun dira Euskararen Araudi eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideez; izan ere, babes handiarekin onartu izan ziren horiek.

Zer hobetuak. Momentuan momentuko udal gobernuaren eta euskara teknikariaren gidaritzapean egindako lan hori guztia sistematizatu, erakundearen kudeaketa orokorrean txertatu eta udal arduradun politiko eta tekniko zein langileen eguneroko lan-jardunean eta agendetan txertatu behar da, zeharkakotasunez. Euskararen erabileraren indarberritze eta normalizazioa Durangoko Udala osatzen dugun guztion ardura partekatu bilakatzeko pauso sendoak eman behar dira.

Helburu estrategikoak:

- Arduradun politiko eta teknikoan lan-jardun eta agendetan txertatuko da euskararen erabilera indarberritu eta normalizatzeko plan estrategiko eta kudeaketa-planen ardura eta kudeaketa: diseinutik hasi, kudeaketarekin jarraitu eta jarraipenera arte.
- Arduradun politiko eta teknikoan jarrera proaktiboa landuko da, euskararen normalizazio-prozesuarekiko.
- Plan estrategikoan jasotako adierazleen betetze-mailari jarraipen sistematikoa egingo dion informazio-sarea osatuko du Udalak: adierazle bakoitza elikatzeko arduraduna eta jarraipena egiteko prozedura zehaztuko da.

	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
1.0.2.4._ Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	% 90,80	% 100	% 9,20	-

1.0.2.5._ Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	% 75	% 100	% 25	-
1.0.2.6._ Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.	% 25	% 75	% 50	Durangoko Udalak bere plan estrategikoan jasotako adierazleen datuak biltzeko informazio-sare sistematizatua osatuko du, eta izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak bilduko dituzte, erabakiko den moduan eta epetan.

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
1.0.2.6.	A. Plan estrategikoko adierazleen datuak biltzeko <u>informazio-sarea osatu eta abian jarri.</u> Durangoko Udalak bere plan estrategikoan jasotako adierazleen datuak biltzeko informazio-sare sistematizatua osatuko du, eta izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak bilduko dituzte, adostu bezala.	1. Informazio-sarearen osaera erabaki: nork, zer, nola eta noiz bilduko duen, hain zuzen ere. 2. Informazio-sarea osatuko duten langileei beharrezko azalpenak eman. 3. Datuen jarraipena egiteko beharrezko tresna eta baliabideak sortu. 4. Datuen jarraipena egin, Euskararen Egitura Eragilearen ohiko bileretan.	Langile eta ordezkari guztiak	Euskararen Egitura Eragileko kideak Datuak biltzeko arduradunak	X	X	X

1.0.3.arloa: LANGILEAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 68,63	% 95	% 26,37

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak

Egoera. Euskararen erabilaren normalizazio-prozesuaren baitan Durangoko Udalak aurrera eramandako planetan langileak parte-hartzaile izan dira, neurri batean ala bestean: hizkuntza-eskakizunak egiaztatu dituzte, euskara prestakuntza eta trebakuntza jaso dute, hizkuntza-irizpideak komunikatu zaizkie, haien lana euskaraz ere egiteko ekimenetan parte hartu dute, etab.

Hortaz, orain arteko ibilbideari jarraipena ematea dagokigu orain, dagoeneko egindakoetan oinarrituta.

Egindakoak. 2007. urtetik izan ditu abian Durangoko Udalak Euskararen Erabilera Normalizatzeko plan estrategikoak, eta plangintzaldi desberdinetan zehar parte hartu izan du euskararen erabilaren normalizazio-prozesuan, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ezarritako bide-orriari jarraiki. Ibilbide horretan guztian zehar, udal-langileek parte hartu izan dute eta informatuak izan dira.

Indarguneak. Langileek badute azaleko ezagutza euskararen erabilaren normalizazio-prozesuaz, eta jakitun dira Euskararen Araudi eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideez; izan ere, diagnostikotik jasotako datuek erakusten dute neurri handi batean ezagutzen dituztela irizpideak; eta ezagutzen dituztenen artean, ia % 80an betetzen direla.

Zer hobetuak. Oraindik ere langileen % 40 bueltan ez ditu ezagutzen hizkuntza-irizpideak, eta ezagutzen dituztenen artean, % 20ak ez ditu betetzen. Hortaz, bada hobekuntza-tarterik bi arlo hauetan. Argi dago, alde batetik, komunikazioak argia eta eraginkorragoa egin behar duela langile guztiek ezagut ditzaten euren eguneroko lan-jardunean bete behar dituzten hizkuntza-irizpideak; eta bestetik, jarraipen sistematikoa egin behar zaiola hizkuntza-irizpideen betetze-mailari: jarraipenerako arduradun eta euskarri egokiak diseinatzuz eta inplementatuz.

Helburu estrategikoak:

- Komunikazio zuzen eta eraginkorra bideratuko da, langile guztiek ezagut ditzaten Udalak abian dituen tresnak euskararen sustapenerako: plan estrategikoa, kudeaketa-planak eta hizkuntza-irizpideak. Bereziki bermatuko da langile guztiek ezagutzen dituztela haien lan-jardunari eragiten dizkieten hizkuntza-irizpideak.
- Langileek beren lan-jardunari dagozkien hizkuntza-irizpideak bete ditzaten, hauei jarraipen sistematikoa egiteko prozedura argia zehaztu eta abian jarriko da: komunikazioa, euskarriak, laguntza teknikoak, jarraipena nola egin, etab.
- Langileak kontuan hartuko dira euskararen erabilera indarberritu eta normalizatzeko plangintzan. Horretarako, plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinatzeko-fasetik hasita eta horien inplementaziora arte, langileei beharrezko informazioa eman eta haien iritzia hartuko da aintzat. Horrela, Euskara Plana langile guztien plana bilakatzea izango da asmoa, haiek bere egin eta eroso egote aldera. Horrez gain, motibazio- eta sentsibilizazio-ekimenak aurrera eramatea aurreikusten da.

	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
1.0.3.7._ Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	% 59,20	% 100	% 40,80	-
1.0.3.8._ Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	% 79,40	% 100	% 20,60	-
1.0.3.11._ Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundean duen bilakaeraz.	% 54,40	% 75	% 20,60	Langileek Euskararen Erabilera Planean eragile izan daitezen, sentsibilizazio- eta sustapen-ekintzak antolatuko dira.

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
1.0.3.7.	A. Durangoko Udaleko <u>langileak euskararen normalizazio-prozesuaz informatu</u>: informazio-ekimenak aurrera eraman eta horretarako euskarri egokiak sortu. Ezinbestekoa da langileak euskararen erabileraren indarberritze- eta normalizazio-prozesuaren erdigunera ekartzea: eragile bihurtzea. Hots, komunikazio zuzen eta eraginkorra bideratu behar da, langile guztiek ezagut ditzaten Udalak abian dituen baliabideak euskararen sustapenerako: plan estrategikoa, kudeaketa-planak eta hizkuntza-irizpideak, besteak beste. Bereziki bermatuko da langile guztiek ezagutzen dituztela haien lan-jardunari eragiten dizkieten hizkuntza-irizpideak, horiek betetze aldera. Horretarako, ohiko jakinarazpen-bideez gain, bestelako euskarriak diseinatu eta langileen eskura jarriko dira.	1. Langileekin kontrastatu plan estrategiko eta kudeaketa-plan berriak diseinu-fasean, eta haien ekarpenak kontuan hartu. 2. Durangoko Udalaren Euskara Planaren testuinguruan egindakoak eta hartutako erabakiak langileei jakinarazi, Euskararen Egitura Eragilearen bitartez. 3. Langileak euskararen normalizazio-prozesuaz informatzeko euskarriak sortu: karpetak, mahai-gainekoak, katiluak, etab.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea		X	X
1.0.3.7.	B. Langile berrientzako <u>harrera-plana diseinatu eta abian jarri</u>. Durangoko Udalean lanean hasten diren langile berrientzako harrera-plana diseinatu eta	1. Harrera-plana diseinatu, eragindako gainerako sailekin batera: Giza Baliabideak, Informatika, etab.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Giza Baliabideak Informatika Saila Euskara Saila		X	X

	inplementatuko da. Horri esker, langile berriak beren lanpostuei dagozkien berezko eginkizunez informatzeaz gain, Udalak zeharlerrotzat jotzen dituen arloez ere informatuko ditu. Euskararen erabilera indarberritu eta normalizatzeko Durangoko Udalak dituen erronka eta konpromisoen berri emango zaie, beren lana euskaraz egin ahal izateko laguntza emateaz gain.	2. Harrera-egiteko prozedura zehaztu eta inplementatu. 3. Harrera-prozedurari etengabeko jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatzeko.					
1.0.3.11.	C. Langileek Euskararen Erabilera Planaren parte izan daitezen, <u>sentsibilizazio- eta sustapen-ekintzak antolatu.</u> Langileak euskararen egoeraz eta euskararen erabilera indartzeko beharraz sentsibilizatzeko ekintza eta saioak antolatuko dira: hitzaldiak, ekintzak, ikuskizunak, Euskaraldia, Euskararen Eguna, etab.	1. Sentsibilizazio-eta sustapen-ekintzak antolatu. 2. Ahalik eta langile gehienek parte hartzea bermatu. 3. Antolatutako ekimenaren balorazioa egin, aurrera begirakoak eskaintzeari begira.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea		X	X

1.0.4.arloa: HIZKUNTZA-GAITASUNA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 85,40	% 91,67	% 6,27

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak

Egoera. Durangoko Udalaren eta berari atxikitako erakunde autonomiadunetako langileen euskara gaitasuna egokia da, eta neurria handi batean langileak gai dira euren egunerako lan-jardunari dagozkion egitekoak euskaraz egiteko: bai idatziz, baita ahoz ere. Hala eta guztiz ere, oraindik ere handia da gaztelaniaz lan egiteko joera. Hortaz, gaitasuna egokia izanda ere, lana bereziki gaztelaniaz egiten dela esan daiteke, idatzizko jardunean batik bat.

Egindakoak. Urteetan zehar, zuzenketa eta trebakuntza-zerbitzua eskaini zaie langileei, baita IVAPen euskara deialdietan parte hartzeko eskaintza eta kudeaketa ere.

Indarguneak. Durangoko Udaleko eta berari atxikitako erakunde autonomiadunetako langileen euskara gaitasuna euskaraz lan egin ahal izateko adinakoa da, salbuespenak salbuespen.

Zer hobetuak. Dena dela, handia da oraindik ere gaztelaniaz lan egiteko joera. Gaztelaniarako inertziak erroto samar daude Durangoko Udalean. Horrez gain, langile askok ez dute autonomia nahikorik beren lanari dagozkion jardun guztiak euskaraz egiteko: joera handia dago euskaraz idatziz sortu beharreko testuak itzultzera bidaltzeko, norberaren lanketarik gabe. Horren ondorioz, askok euskaraz lan egiteko gaitasuna herdoilduta daukate (bereziki, idatzizkoan). Komenigarria da hizkuntza-ohiturak aldatzeko lanketak bideratzea eta euskaraz lan-jardun guztiak egin ahal izateko hizkuntza-gaitasuna lantzea.

Helburu estrategikoak:

- Langileen euskara-gaitasuna hobetze zein mantentze aldera, trebakuntza-egitarau indibidualizatua zein taldekakoa diseinatu eta aurrera eraman, langileen beharretan oinarrituta.
- Euskara Sailari eskatutako euskara-itzulpenak eskatzeko jarraibideak adostu eta ezarri, itzulpenen kopurua jaitsi eta horrekiko mendekotasunarekin amaitzeko.
- Testuak euskaraz sortzeko orduan, Euskara Sailak ematen duen laguntzaren barnean zuzenketaren alde egiteko, zuzenketa didaktizatuen zerbitzua abian jarri.
- Euskaraz lan egiteko langileekin sentsibilizazioa eta motibazioa landu.

	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
1.0.4.12._ Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.	% 80,60	% 90	% 9,40	Langileek eta arduradun politikoei euskaraz lan egin dezaten, euskara-gaitasuna mantentze zein hobetzerako bideratutako baliabideak eskaini: trebakuntza, zuzenketa didaktizatuak
1.0.4.13._Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.	% 75,60	% 85	% 9,40	

Durangoko Udalean Euskararen Erabilera Indarberritu eta Normalizatzeko Plan Estrategikoa
2023-2027

1.0.4.14._Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	% 100	% 100	% 0	eta sentsibilizazio-ekimenak, besteak beste.
---	-------	-------	-----	--

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
1.0.4.12. 1.0.4.13. 1.0.4.14.	A. <u>Itzulpen-politika berria diseinatu eta abian jarri.</u> Euskara Sailaren egiteko nagusienetako bat izan da udal-sail desberdinek eskatutako itzulpenak egitea; halaber, laguntza teknikoa eskaintzen zaie haiei euskarazko testuak zuzentze aldera. Nolanahi ere, Euskara Sailak itzuli beharreko testuen bolumena gutxitzeko helburua dauka Udalak, langileen euskarazko ekoizpenak gora egiten duten neurri berean; hala, proportzio berean egingo du lehenak behera eta bigarrenak gora. Horretarako, itzulpenen-dinamika ahalik eta eraginkorren eta ondoen egiteko hainbat irizpide ezarriko ditu Durangoko Udalak, eta langileak irizpide horien jakitun egin.	1. Itzulpen-irizpide berriak diseinatu. 2. Udal-langile guztiei jakinarazi. 3. Prozedura berria inplementatu. 4. Prozedurari jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea	X	X	X
1.0.4.12. 1.0.4.13. 1.0.4.14.	B. <u>Udal-langileentzako euskararen alorreko berezko prestakuntza eskaini.</u> Udaleko eta erakunde autonomiadunetako langileek euskaraz eroso eta eraginkortasunez lan egin dezaten, haietzako euskararen alorreko berezko prestakuntza eskainiko da. Egitarau horren barnean, askotariko gaiak landuko dira, antzematen diren behar orokor eta espezifikoen arabera: - Euskaraz sortzeko baliabide informatikoak.	1. Euskararen alorrean langileek dituzten prestakuntza-beharak identifikatu. 2. Euskararen alorreko berezko prestakuntza eskaini. 3. Eskainitako prestakuntza-	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea		X	X

	- Itzultzaile neuronalaren erabilera egokia. - Eduki soziolinguistikoak. - Euskararen normalizazio-prozesua. - Etab.	eskaintzari jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.					
1.0.4.12. 1.0.4.13. 1.0.4.14.	C. Udal-langileen lan-jardunen eta funtzio komunikatiboen azterketa egin, euskararen alorrean dituzten beharrak identifikatze aldera. Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomiadunetako langileen lan-jardunen eta funtzio komunikatiboen azterketa zehatza egingo da —horretarako propio sortutako baliabideak erabilita—, euskararen alorrean izan litzaketen oztopo zein gabeziak identifikatu, eta hauek gainditzera bideratutako tresna eta baliabideak eskaintze aldera.	1. Lan-jardunen eta funtzio komunikatiboen berri jasotzeko galdetegia diseinatu. 2. Galdetegia langile guztiei bidali. 3. Datuen ustiaketa egin. 4. Hizkuntza-beharrak asetzeko egutegia prestatu eta inplementatu. 5. Eskaintzari jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea	x	x	x

1.0.5.arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea		
% 75	% 100	% 25		
Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak				
Egoera. Unean-unean kanpainaren bat egin bada ere, ez da modu sistematikoan jakinarazten zein den Durangoko Udalaren estrategia euskararen erabilera sustatzeko: ez herritarrei, ezta gainerako interes-taldee ere. Bestalde, euskararen erabileraren normalizazioa jomugan, beste erakunde batzuen esperientziak eta praktika onak ezagutzeko saioetan parte hartzen du Udalak, ohikotasunez.				
Egindakoak. Noizean behin euskararen erabileraren sustapenerako kanpainak egin izan dira, eta Udalarekiko harremanak euskaraz izan daitezten ekimen puntualak egin dira herritarren artean. Horrez gain, Durangoko Udaleko Euskara Saileko langileek parte hartu izan dute beste erakunde batzuek deitutako saio eta jardunaldietara, euskararen sustapenaren alorreko gaiak lantzeko.				
Indarguneak. Durangoko Udalak badu euskararen erabilera bultzatzeko estrategia bat, herritar eta interes-taldee jakinaraz diezaikeena; eta badu ibilbidea eginda, beste erakundeekiko elkarlana sustatzen jarraitzeko.				
Zer hobetuak. Durangoko Udalak sistematizatu beharra dauka bere estrategia jakinarazteko erronka; izan ere, noizean behin aurrera eramandako ekintza eta kanpaina puntualez haratago, komunikazio-plangintza zehaztu beharra dauka: herritarrei eta gainerako interes-taldee jakinarazi behar die zein den bere estrategia euskararen sustapenari begira. Horrez gain, euskararen normalizazioaren alorrean Udala garatuz doan esperientzia eta berezko praktika onak besteekin partekatzeko lan egin behar du; elkarlana norabide bikoa baita.				
Helburu estrategikoak: - Herritarrei eta interes-taldee jakinarazi zein estrategia duen Durangoko Udalak euskararen erabilera sustatzeko: komunikaziorako plangintza diseinatu eta garatu. - Euskararen normalizazio alorrean beste erakunde batzuen ekimenak ezagutzen jarraitu eta berezkoak ezagutzera eman.				
	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
1.0.5.15._Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldee.	% 75	% 100	% 25	-
1.0.5.16._Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.	% 75	% 100	% 25	-

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
1.0.5.15.	A. Udalak <u>euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia herritarrei eta interes-taldeei komunikatzeko kanpainak egin.</u> Funtsezkoa da Durangoko Udalak euskararen erabilera indarberritu eta normalizatzeko duen apustua, eta horretara bideratutako estrategia, Durangoko herritarrei eta gainerako bere interes-taldeei modu efektiboan komunikatzea. Izan ere, euskararen indarberritze-prozesua ez da Durangoko Udalarari dagokion erronka bakarrik, euskal gizarte osoa interpelatzen duena baizik: denok egin behar dugu arraun norabide berean, arrakasta izango badugu. Beraz, Udalak herritarrei eta gainerako interes-taldeeiei komunikatuko die ez soilik euskara sustatu nahi duela, baizik eta erakundeak erabaki estrategiko bat hartu duela, eta bere erronken artean euskararen erabilera sustatzea dagoela. Horretara bideratu du bere plan estrategikoa eta helburu horrekin lerrokatu ditu hizkuntza-irizpideak.	1. Komunikazio-ekintzak diseinatu eta planifikatu. 2. Komunikazio-ekintzak inplementatu. 3. Komunikazio-ekintzei jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.	Durangoko herritarrak Udalaren gainerako interes-taldeak Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea		X	X

1.0.6.arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 32,50	% 73,75	% 41,25

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak

Egoera. 2023. urtean eguneratutako Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Araudian dagoeneko jasotzen dira dirulaguntzetan eta kontratuetan txertatu beharreko hizkuntza-irizpideak. Horrez gain, badago landuta Durangoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza-irizpideei buruzko erabaki-proposamena.

Egindakoak. Udalak ematen dituen dirulaguntzetan eta aurrera eramaten dituen kontratuetan txertatu beharreko hizkuntza-klausulak zeintzuk diren jasotzen dituen dokumentu bana dago landuta.

Indarguneak. Dirulaguntza eta hitzarmenetan zein kontratuetan txertatu beharreko hizkuntza-klausulen lanketaren lehen urratsak emanak ditu Udalak. Hortaz, badago lan horretan sakondu eta jarraipena emateko oinarri sendoa.

Zer hobetuak. Oinarria sendoa izanda ere, ezinbestekoa da lanketari jarraipena ematea: hizkuntza-klausulak berrikusi, eguneratu, adostu, komunikatu, txertatu eta jarraipenerako prozedura egingarri eta argiak inplementatu.

Helburu estrategikoak:

- Kontratuetan txertatu beharreko hizkuntza-klausulak berrikusi eta beharrezko egokitzapenak egin, eta onartu.
- Dirulaguntza eta hitzarmenetan txertatu beharreko hizkuntza-klausulak berrikusi eta beharrezko egokitzapenak egin, eta onartu.
- Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan txertatu beharreko hizkuntza-klausulen komunikazio egokia egin, horretarako euskarri eta bide egokiak erabiliz.
- Kontratuetako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko prozedura egingarri eta argia diseinatu eta inplementatu.

	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
1.0.6.17._ Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	% 25	% 50	% 25	Kontratuetan txertatzeko hizkuntza-klausulak berrikusi, egokitu, onartu, jakinarazi eta txertatu.
1.0.6.18._Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	% 100	% 100	% 0	Dirulaguntza eta hitzarmenetan txertatzeko hizkuntza-klausulak berrikusi, egokitu, onartu, jakinarazi eta txertatu.

1.0.6.19._ Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	% 25	% 75	% 50	Kontratuetako hizkuntza-klausulei jarraipena egiteko prozedura zehaztu eta inplementatu.
---	------	------	------	--

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
1.0.6.17.	A. <u>Kontratueta</u> txertatu beharreko <u>hizkuntza-klausulak eguneratu.</u> Durangoko Udalak ezarrita ditu dagoeneko administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan haietan txertatu beharreko hizkuntza-klausulak. Lan hori berrikusi, eta beharrezko eguneraketak egingo dira, kontratueta hizkuntza-klausula egokiak txertatze aldera. Horrez gain, kontratazioan txertatuko diren hizkuntza-alorreko klausulekin batera, bestelako gizarte-klausulak txertatzeko aukera aztertuko da dagokien udal-sailekin, guztion lana koherente, koordinatu eta biderkatzaile izate aldera, eta lanaren efizientzia jomugan.	1. Kontratazioan indarrean dauden hizkuntza-klausulak berrikusi eta balizko eguneraketak egin. 2. Gainerako udal-sailekin elkarlanean, klausula sozialak elkarrekin lantzeko aukerak aztertu. 3. Langile guztiei eman kontratazioa hizkuntza-klausulen berri. 4. Klausula horiei jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.	Enpresa eta elkarteak Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Kontratazio Atala Gizarte Ekintza Bulego Teknikoa Berdintasun Saila Kontratuak kudeatzen dituzten langileak Euskararen Egitura Eragilea		X	
1.0.6.18.	B. <u>Dirulaguntza eta hitzarmeneta</u> txertatu beharreko <u>hizkuntza-klausulak eguneratu.</u> Durangoko Udalak ezarrita ditu dagoeneko dirulaguntza eta hitzarmeneta txertatu beharreko	1. Dirulaguntza- eta hitzarmen-alorrean indarrean dauden hizkuntza-klausulak	Enpresa eta elkarteak	Euskara Saila Idazkaritza Gizarte Ekintza		X	

	hizkuntza-klausulak. Lan hori berrikusi, eta beharrezko eguneraketak egingo dira, dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausula egokiak txertatze aldera. Horrez gain, dirulaguntza eta hitzarmenetan txertatuko diren hizkuntza-alorreko klausulekin batera, bestelako gizarte-klausulak txertatzeko aukera aztertuko da dagokien udal-sailekin, guztion lana koherente, koordinatu eta biderkatzaile izate aldera, eta lanaren efizientzia jomugan.	berrikusi eta balizko eguneraketak egin. 2. Gainerako udal-sailekin elkarlanean, klausula sozialak elkarrekin lantzeko aukerak aztertu. 3. Langile guztiei eman hizkuntza-klausulen berri. 4. Klausula horiei jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Bulego Teknikoa Berdintasun Saila Dirulaguntza eta hitzarmenak kudeatzen dituzten langileak Euskararen Egitura Eragilea			
1.0.6.19.	C. <u>Kontratuetan txertatutako hizkuntza-klausulei jarraipena egiteko prozedura zehaztu eta inplementatu.</u> Kontratuetan hizkuntza-klausulak txertatzea beharrezko lehen urratsa bada ere, hauen eragina egikaritzeko ezinbestekoa da haien jarraipena egitea; eta nola ez, jarraipen hau sistematikoa izatea. Hau da, ezinbestekoa da argitzea ea egiaztatu den hizkuntza-klausula horiek bete diren, hizkuntza-klausulak ez betetzeari buruzko kexak kontuan hartu diren, ez betetzeak zuzentzeko neurriak hartu diren, etab.	1. Kontratuetakoz hizkuntza-klausulen jarraipena egiteko prozedura zehaztu. 2. Prozedura horrek behar dituen tresna eta baliabideak aurreikusi eta sortu. 3. Prozedura eta sortutako euskarriak inplementatu.	Enpresa eta elkarteak Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Kontratazio Atala Gizarte Ekintza Bulego Teknikoa Berdintasun Saila Kontratuak kudeatzen dituzten langileak Euskararen Egitura Eragilea			x

		4. Prozedura eta sortutako euskarri horiei jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.					
--	--	---	--	--	--	--	--

2. ardatza: ERABILERA		
Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 58,55	% 74,98	% 16,43
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI DAGOZKION ERRONKAK		
- Durangoko Udalean eta bere erakunde autonomoetan euskara zerbitzu-hizkuntza gisa % 100 bermatuko da, eta euskara aktiboki eskaintzeko urratsak emango dira. - Durangoko Udala euskararen arnagune funtzional bilakatzeko neurriak hartuko dira. Hots, Udal barruko hizkuntza-ohiturak eraldatzeko saiakera egingo da, euskara eguneroko lan-jardunean modu sistematiko, egonkor eta eraginkorrean erabil dadin; eta beraz, euskara erabiltzeko baldintza eroso eta eraginkorrak sor daitezen.		

2.1. eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA

2.1.1.arloa: IRUDIA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea		
% 75,80	% 100	% 24,20		
Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak				
Egoera. Erakunde batek proiektatzen duen irudia bere aurkezpen-gutuna da, asko esaten du erakunde horren misio, bisio eta estrategiari dagokionez. Hori dela eta, erakundeetako hizkuntza-paisaia euskaratzea eman ohi den lehen urratsetako bat bada ere, ez da gainditutzat eman beharreko auzia, ezta gutxietsi beharrekoa ere euskararen erabilaren normalizazio-prozesuan. Askok dira erakunde baten irudi instituzionala osatzen duten elementuak, eta bermatu beharra dago euskararen lehentasuna zein presentzia orekatua hauetako guztietan. Durangoko Udalaren irudia osatzen duten elementu horietan guztietan ez da txikia euskararen presentzia, diagnostiko kuantitatiboak erakusten duen bezala; hala eta guztiz ere, % 100eko emaitzak lortzea ezinbestekoa da, zerbitzu-hizkuntzari dagozkion lege-betekizunak bermatze aldera.				
Egindakoak. Udalaren irudia osatzen duten elementuetan euskaren presentzia eta erabilera % 100 bermatzeko, hizkuntza-irizpideak onartuta daude, eta neurri handi batean, hauek betetzen dira, hutsuneak hutsune.				
Indarguneak. Durangoko Udalak bere irudiari dagozkion hizkuntza-irizpideak onartuta ditu, langileei eta arduradun politikoei jakinarazita, eta hein handi batean bermatuta.				
Zer hobetuak. Hala izanda ere, eta diagnostiko kuantitatiboko datuek erakutsi bezala, zeinbait hutsune ere identifikatu da, konpontze bidean jarri behar direnak. Hauek guztiak modu argi eta errazean identifikatu eta konpontzeko mekanismoak abian jarri behar ditu Udalak, irudiari dagozkion hizkuntza-irizpideak % 100 bete daitezen.				
Helburu estrategikoak: - Erakundearen irudiari dagozkion hizkuntza-irizpideak berrikusi, egokitu, komunikatu eta betetzen direla ziurtatu. - Durangoko Udalaren irudia osatzen duten elementu guztiak (errotuluak eta ikus-entzunezkoak; argitalpen, iragarki eta publizitatea; agerraldi instituzionalak; eta, web-orri eta sare sozialak) euskaraz badaudela ziurtatzeko ikuskatze-prozedura diseinatu eta abian jarri, balizko hutsuneak konpontzeko.				
	Adierazleak (%)		Helburua	
	Hasiera	Aurreikuspena		Aldea
2.1.1.21._ Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.	% 88	% 100	% 12	Durangoko Udalaren irudiaren barneko elementuetako bakoitzean zehaztutako hizkuntza-irizpideen

Durangoko Udalean Euskararen Erabilera Indarberritu eta Normalizatzeko Plan Estrategikoa
2023-2027

2.1.1.22._ Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.	% 66	% 100	% 34	betetze-mailaren jarraipena egin, eta balizko ez betetzeak zuzendu.
2.1.1.23._ Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	% 60	% 100	% 40	
2.1.1.24._ Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.	% 90	% 100	% 10	

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
2.1.1.21. 2.1.1.22. 2.1.1.23. 2.1.1.24.	A. Durangoko Udalaren irudiaren barneko elementuetako bakoitzean zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta balizko ez betetzeak zuzendu. Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek legez eman behar dituzte bi hizkuntza ofizialetan haien irudiaren barneko elementu guztiak: errotuluak eta ikus-entzunezkoak; argitalpen, iragarki eta publizitatea; agerraldi instituzionaletako komunikazioak; eta web-orria eta sare sozialak. Erakundearen zerbitzu-hizkuntza osatzen duten elementu hauetan guztietan euskararen presentzia eta erabilera bermatu beharra dago % 100. Hortaz, hizkuntza-irizpide hori betetzen dela bermatzeko, ikuskatze-prozedura zehaztu eta aurrera eramango da.	1. Irudiari dagozkion hizkuntza-irizpideak ikuskatzeko prozedura sortu. 2. Prozedura horrek behar dituen tresna eta baliabideak aurreikusi eta sortu. 3. Prozedura eta sortutako euskarriak inplementatu. 4. Prozedura eta sortutako euskarri horiei jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.	Durangoko herritarrak Sektore publikoko beste erakundeak Enpresa pribatuak eta elkarteak Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea Eragindako sailetako langileak		X	X

2.1.2.arloa: HERRITARREKIKO HARREMANAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 82,55	% 95	% 12,45

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak

Egoera. Udal batek bere erabiltzaileekin —kasu honetan herritarrekin— dituen harremanak bere egitekoen erdigunean daude; funtsezkoak dira. Hortaz, harreman horiek hurbilak, eraginkorrak eta kalitatezkoak izan daitezten bermatzea dagokio Durangoko Udalari. Ildo horri jarraiki, harreman horien nolakotasunean hizkuntzek berebiziko garrantzia daukate, zalantza-izpirik gabe. Ezin ahanztz dezakegu, halaber, legeak ezartzen duela zerbitzu-hizkuntzari dagokionean —herritarrekiko harremanak, kasu honetan—, euskararen eskaintza % 100 izatea bermatu behar dela.

Durangoko Udalak herritarrekin dituen harremanetan egiten duen euskararen eskaintza handia da, diagnostiko kuantitatiboak erakusten duen bezala; hala eta guztiz ere, % 100eko emaitzak lortzea ezinbestekoa da, zerbitzu-hizkuntzari dagozkion lege-betekizunak bermatze aldera.

Egindakoak. Herritarrekiko harremanetan euskararen eskaintza % 100 izatea bermatzeko, hizkuntza-irizpideak onartuta daude, eta neurri handi batean, hauek betetzen dira, hutsuneak hutsune.

Indarguneak. Durangoko Udalak onartuta ditu herritarrekiko harremanei dagozkien hizkuntza-irizpideak, langileei eta arduradun politikoei jakinarazita daude, eta hein handi batean, bermatuta.

Zer hobetuak. Hala izanda ere, eta diagnostiko kuantitatiboko datuek erakutsi bezala, zeinbait hutsune ere identifikatu da, konpontze bidean jarri behar direnak. Hauek guztiak modu argi eta errazean identifikatu eta konpontzeko mekanismoak abian jarri behar ditu Udalak, herritarrekiko harremanei dagozkien hizkuntza-irizpideak % 100 bete daitezten.

Helburu estrategikoak:

- Herritarrekiko harremanei dagozkien hizkuntza-irizpideak berrikusi, egokitu, komunikatu eta betetzen direla ziurtatu.
- Herritarrekiko harremanen arloan, ahoz zein idatziz, euskara % 100 eskaintzen dela ziurtatzeko ikuskatze-prozedura abian jarri, balizko hutsuneak konpontzeko.

	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
2.1.2.25._ Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	% 71,10	% 100	% 28,90	Herritarrekiko harremanetan zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta balizko ez betetzeak zuzendu.
2.1.2.26._ Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	% 89,30	% 100	% 10,70	

2.1.2.27._ Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	% 55	% 100	% 45	
2.1.2.28._ Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 100	% 100	% 0	
2.1.2.29._ Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	% 100	% 100	% 0	
2.1.2.30._ Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.	% 54,40	% 70	% 15,60	-
2.1.2.31._ Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.	% 70	% 80	% 10	-

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
2.1.2.25. 2.1.2.26. 2.1.2.27. 2.1.2.28. 2.1.2.29. 2.1.2.30. 2.1.2.31.	A. Durangoko Udalaren <u>herritarrekiko harremanen barneko elementuetako bakoitzean zehaztutako hizkuntza-irizpideen</u> betetze-mailaren <u>jarraipena egin</u>, eta balizko <u>ez betetzeak zuzendu</u>. Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek legez eman behar dituzte bi hizkuntza ofizialetan herritarrekiko harremanen barneko elementu guztiak: zerbitzua, ahoz; ekitaldiak eta ikastaroak; eta bidalitako dokumentuak. Erakundearen zerbitzu-hizkuntza osatzen duten elementu hauetan guztietan euskararen eskaintza bermatu beharra dago % 100. Hortaz, hizkuntza-irizpide hori betetzen dela bermatzeko, ikuskatze-prozedura zehaztu eta aurrera eramango da.	1. Herritarrekiko harremanei dagozkien hizkuntza-irizpideak ikuskatzeko prozedura sortu. 2. Prozedura horrek behar dituen tresna eta baliabideak aurreikusi eta sortu. 3. Prozedura eta sortutako euskarriak inplementatu. 4. Prozedura eta sortutako euskarri horiei jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.	Durangoko herritarrak Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea Udal langile eta ordezkari guztiak		X	X

2.2. eremua. LAN-HIZKUNTZA

2.2.1. arloa: BARNE-HARREMANAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 42,08	% 68,50	% 26,42

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak

Egoera. Langileen euskara gaitasuna eta euskararekiko atxikimendua handiak dira, baita arduradun politikoen artean ere. Gainera, barne-harremanetako hizkuntza-irizpideak zehaztuta ere badaude; hala eta guztiz ere, horietan zenbait hutsune identifikatu da. Amaitzeko, eta aurretik aipatu izan dugun bezala, gaztelaniaz lan egiteko joera gailentzen da askotan Udalean (bereziki, idatzizko komunikazioan).

Egindakoak. Udalaren barne-harremanetan euskararen presentzia eta erabilera bermatzeko, hizkuntza-irizpideak onartuta daude, eta neurri batean, horiek betetzen dira, hutsuneak hutsune. Horrez gain, urteetan zehar langileei zenbait baliabide eskaini zaie beren lana euskaraz egin dezaten: trebakuntza, dokumentuen estandarizazioa, zuzenketak...

Indarguneak. Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomiadunetako langileen hizkuntza-gaitasuna ona da. Horrez gain, langileen euskararekiko atxikimendua ere ez da txikia. Beraz, badaude Udalean lan-hizkuntza euskara izateko aldeko baldintzak. Ezin dugu ahaztu, era berean, Durangoko Udalak erronka estrategikotzat hartu duela Udala euskararentzat arnagune funtzional izatea, eta beraz, euskara lan-hizkuntza izan dadin urrats sendoak hartuko ditu.

Zer hobetuak. Gaitasuna eta atxikimendua handiak izanda ere, hainbatetan gaztelaniarekiko joera gailentzen da (bereziki, idatzizkoan). Hortaz, ezinbestekoa da joera edota zailtasun horiek identifikatu eta konpontzeko neurriak hartzea.

Helburu estrategikoak:

- Euskara Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileen lan-hizkuntza izateko, barne-harremanei dagozkien hizkuntza-irizpideak berrikusi, egokitu, komunikatu eta betetzen direla ziurtatu.
- Langileek euskaraz lan egiteko baldintza egokiak bermatu: zailtasunak identifikatu eta konponbidean jarri (hizkuntza-ohiturak landu, trebakuntza eskaini, dokumentuen estandarizazioa landu, euskara hutsezko komunikazio-ekintzak sustatu, Udalaren estilo liburua landu...).
- Langileek euskaraz lan egiteko sentsibilizazio- eta motibazio-ekimenak abian jarri.

	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
2.2.1.33._ Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	% 55,20	% 75	% 19,80	-

2.2.1.35._ Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	% 74,93	% 100	% 25,07	-
2.2.1.38._ Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.	% 73,53	% 85	% 11,47	-

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
2.2.1.33. 2.2.1.35. 2.2.1.38.	A. Durangoko Udalen <u>barne-harremanetan zehaztutako hizkuntza-irizpideen</u> betetze-mailaren <u>jarraipena egin</u>, eta balizko <u>ez betetzeak zuzendu</u>. Erakunde bateko zerbitzu-hizkuntzan euskararen eskaintza % 100 izatea bermatzeko, ezinbestekoa da lan-hizkuntzan aurrerapausoak ematea. Hau da, nekez izango da euskara zerbitzu-hizkuntza, lan-hizkuntzan ere aurrera egiten ez duen bitartean. Hots, euskara lan-hizkuntza gisa nagusitu ahala, konponduz joango dira zerbitzu-hizkuntzan antzemandako hutsuneak. Hortaz, barne-harremanetarako zehaztutako hizkuntza-irizpideak betetzen direla bermatzeko, ikuskatze-prozedura zehaztu eta aurrera eramango da.	1. Barne-harremanei dagozkien hizkuntza-irizpideak ikuskatzeko prozedura sortu. 2. Prozedura horrek behar dituen tresna eta baliabideak aurreikusi eta sortu. 3. Prozedura eta sortutako euskarriak inplementatu. 4. Prozedura eta sortutako euskarri horiei jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea Udal langile eta ordezkari guztiak		X	X

2.2.2. arloa: KANPO-HARREMANAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 75,46	% 85	% 9,54

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak

Egoera. Durangoko Udalak dituen kanpo-harremanetan jarraitu beharreko hizkuntza-irizpideak onartuta daude, eta neurri handi batean, betetzen dira.

Egindakoak. Udalaren kanpo-harremanei dagozkien hizkuntza-irizpideak onartuta eta komunikatuta daude, eta neurri handi batean, hauek betetzen dira, hutsuneak hutsune.

Indarguneak. Durangoko Udalak kanpo-harremanei dagozkien hizkuntza-irizpideak onartuta ditu, langileei eta arduradun politikoei jakinarazita, eta hein handi batean beteta.

Zer hobetuak. Hala izanda ere, eta nahiz eta diagnostiko kuantitatiboak horren berri ez eman, zenbait hutsune ere identifikatu da, konpontze bidean jarri behar direnak. Hauek guztiak modu argi eta errazean identifikatu eta konpontzeko mekanismoak abian jarri behar ditu Udalak, ezarrita dituen hizkuntza-irizpideak % 100 bete daitezen.

Helburu estrategikoak:

- Euskara Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileek Euskal Sektore Publikoko beste erakunde batzuekiko harremanetan euskara lan-hizkuntza izateko, arlo horretako hizkuntza-irizpideak berrikusi, egokitu, komunikatu eta betetzen direla ziurtatu.
- Langileek euskaraz lan egiteko baldintza egokiak bermatu: zailtasunak identifikatu eta konponbidean jarri (hizkuntza-ohiturak landu, trebakuntza eskaini, dokumentuen estandarizazioa landu, Udalaren estilo liburua landu ...).

	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
2.2.2.40._ Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	% 100	% 100	% 0	-

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
2.2.2.40.	A. Durangoko Udalaren <u>kanpo-harremanetan zehaztutako hizkuntza-irizpideen</u> betetze-mailaren <u>jarraipena egin</u>, eta balizko <u>ez betetzeak zuzendu</u>. Kanpo-harremanetarako zehaztutako hizkuntza-irizpideak betetzen direla bermatzeko, ikuskatze-prozedura zehaztu eta aurrera eramango da.	1. Kanpo-harremanei dagozkien hizkuntza-irizpideak ikuskatzeko prozedura sortu. 2. Prozedura horrek behar dituen tresna eta baliabideak aurreikusi eta sortu. 3. Prozedura eta sortutako euskarriak inplementatu. 4. Prozedura eta sortutako euskarri horiei jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.	Sektore publikoko erakundeak Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea Udal langile eta ordezkari guztiak		X	X

2.2.3. arloa: PRESTAKUNTZA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea
% 38,65	% 59,50	% 20,85

Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak

Egoera. Durangoko Udalak ez du zehaztuta irizpiderik bere ardurapeko langileei eskaintzen zaien prestakuntzaren hizkuntzari dagokionez. Hortaz, askotan langile bakoitzaren esku geratzen da lan-prestakuntza hori zein hizkuntzatan jaso; hizkuntza hautatzeko aukera dagoenean, betiere.

Bestalde, Udalak urteak daramatza bere ardurapeko langileei hizkuntza-trebakuntza eskaintzen. Hala eta guztiz ere, trebakuntza-eskaintza ez dago sistematizatuta, ezta trebakuntza-beharren diagnostiko batean oinarrituta ere.

Egindakoak. Udalak urteak daramatza bere ardurapeko langileei hizkuntza-trebakuntza eskaintzen.

Indarguneak. Durangoko Udalak ibilbidea egin du bere ardurapeko langileei hizkuntza-trebakuntza eskaintzen.

Zer hobetuak. Hala izanda ere, trebakuntza-eskaintza hori langileen beharretan oinarritu behar da eta eskaintzeko modua sistematizatu; ezin da unean uneko lan-karga eta beharren arabera antolatu, modu puntualean, eta jarraikortasunik gabe. Ondorioz, ezinbestekoa da langileen funtzio komunikatibo eta hizkuntza-beharren azterketa xehea egitea, eta horren arabera eskaintza diseinatu eta sistematizatzea.

Horrez gain, premiazkoa da langileen prestakuntza orokorrari dagozkion hizkuntza-irizpideak ere zehaztea; ahal den kasuetan, langileek prestakuntza orokor hori euskaraz jaso dezaten, eta beraz, bakoitzaren lan-arloari dagokion edukia euskaraz landu eta gara dezan.

Helburu estrategikoak:

- Langileek jasotzen duten prestakuntza orokorra euskaraz jaso dezaten, prestakuntzari dagozkion hizkuntza-irizpideak zehaztu.
- Hizkuntza-trebakuntzari dagokion eskaintza sistematizatu.

	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
2.2.3.43._ Erakundeak euskaraz eskaintzen diren prestakuntza orokorra langileei.	% 20	% 50	% 30	Prestakuntza arloko hizkuntza-jarraibideak adostu eta implementatu.
2.2.3.45._ Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.	% 75	% 75	% 0	Langileen beharretan oinarritutako trebakuntza-egitaraua planifikatu eta aurrera eraman.

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
2.2.3.43.	A. Langileei eskaintzen zaien <u>prestakuntza orokorra arautzeko jarraibideak sortu eta inplementatu.</u> Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomiadunetako langileei eskaintzen zaien prestakuntza arautzeko jarraibideak adostu eta osatuko ditu Udalak, prestakuntza honen hizkuntza-hautuari dagokionez. Izan ere, langileek euskaraz lan egin ahal izateko, premiazkoa da beren lan-jardunari dagokion prestakuntza euskaraz jasotzea.	1. Prestakuntza orokorra arautzeko jarraibideak adostu eta osatu. 2. Jarraibide berriak langile guztiei komunikatu. 3. Jarraibide berriak inplementatu. 4. Jarraibide berriei jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Giza Baliabideak Euskararen Egitura Eragilea Udal-sail bakoitzeko arduradunak		X	X
2.2.3.43.	B. Udal-langileentzako <u>euskararen alorreko berezko prestakuntza eskaini.</u> Udaleko eta erakunde autonomiadunetako langileek euskaraz eroso eta eraginkortasunez lan egin dezaten, haientzako euskararen alorreko berezko prestakuntza eskainiko da. Egitarau horren barnean, askotariko gaiak landuko dira, antzematen diren behar orokor eta espezifikoaren arabera: - Euskaraz sortzeko baliabide informatikoak. - Itzultzaile neuronalaren erabilera egokia.	1. Euskararen alorrean langileek dituzten prestakuntza-beharrak identifikatu. 2. Euskararen alorreko berezko prestakuntza eskaini. 3. Eskaintako prestakuntza-	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Udal Euskaltegia Euskararen Egitura Eragilea		X	X

	- Eduki soziolinguistikoak. - Euskararen normalizazio-prozesua. - Etab.	eskaintzari jarraipena egin, balizko hobetzekoak identifikatze aldera.					
2.2.3.45.	C. Udal-langileen lan-jardunen eta funtzio komunikatiboen azterketa egin, euskararen alorrean dituzten beharrak identifikatze aldera eta <u>trebatze-egitarau indibidualizatua eskaintze aldera.</u> Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomiadunetako langileen lan-jardunen eta funtzio komunikatiboen azterketa zehatza egingo da —horretarako propio sortutako baliabideak erabilita—, euskararen alorrean izan litzaketen oztopo zein gabeziak identifikatu, eta hauek gainditzera bideratutako tresna eta baliabideak eskaintze aldera. Azken helburua izango da langileentzako trebakuntza-egitarau indibidualizatua eskaintzea: - Trebakuntza-egitaraua - 5 minutuko pilulak - Berezko prestakuntza - Dokumentuen estandarizazioa - Udalaren estilo liburua	1. Lan-jardunen eta funtzio komunikatiboen berri jasotzeko galdetegia diseinatu. 2. Galdetegia langile guztiei bidali. 3. Datuen ustiaketa egin. 4. Hizkuntza-beharrak asetzeko trebatze-egitaraua prestatu eta inplementatu.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Euskararen Egitura Eragilea	X	X	X

2.2.4. arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea		
% 34,20	% 50	% 15,80		
Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak				
Egoera. Durangoko Udalak jasota ditu baliabide informatikoen alorreko hizkuntza-irizpideak. Bestalde, langileek erabiltzen dituzten programa informatiko gehienak euskaraz erabiltzeko moduan badaude ere, langile gutxik erabiltzen dituzte euskaraz.				
Egindakoak. Bulegotikako materialari dagozkion hizkuntza-irizpide orokorrak onartuta eta komunikatuta daude.				
Indarguneak. Bulegotikako materialari dagozkion hizkuntza-irizpide orokorrak onartuta eta komunikatuta daude. Bestalde, Durangoko Udaleko langileek erabiltzen dituzten programa informatiko gehienak euskaraz erabiltzeko moduan daude.				
Zer hobetuak. Bulegotikako materialari dagozkion hizkuntza-irizpideak jasota badaude ere, hauek garatu beharra dago; izan ere, langile gutxik erabiltzen dituzte euskaraz ere eskura dituzten programa informatikoak: - Erabiltzen diren programa informatikoen eta hauek eskaintzen diren hizkuntzen azterketa egin. - Arlo honi dagozkion hizkuntza-irizpideak zehaztu. - Programa informatikoak euskaraz erabiltzeko kanpainak egin. - Oraindik ere euskaraz eskaintzeko moduan ez dauden programa informatikoak euskaraz eskaintzen joateko plangintza zehaztu.				
Helburu estrategikoak: - Durangoko Udalean eta bere ardurapeko erakunde autonomoetan erabili beharreko programa informatiko guztiak euskaraz eskaini ahal izateko plangintza zehaztu. - Programa informatikoen erabilerarako hizkuntza-irizpideak zehaztu, komunikatu eta betetzen direla ziurtatu. - Langileek eskura dituzten programa informatikoen euskarazko erabilera sustatu.				
	Adierazleak (%)			Helburua
	Hasiera	Aurreikuspena	Aldea	
2.2.4.46._ Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	% 32,5	% 50	% 17,50	-
2.2.4.47._ Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak.	% 35,9	% 50	% 14,10	-

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
2.2.4.46. 2.2.4.47.	A. Langileen esku jartzen diren <u>baliabide informatikoen inbentarioa egin, eta denak euskaraz eskaintzeko plangintza zehaztu.</u> Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileen eskura jartzen diren baliabide informatikoak zerrendatuko ditugu, eta guztiak euskaraz ere eskaintzeko plangintza zehaztuko da.	1. Baliabide informatikoen zerrenda egin. 2. Euskaraz ez dauden baliabide informatikoak identifikatu. 3. Baliabide informatiko guztiak euskaraz eskaintzeko plangintza zehaztu.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Informatika Atala Euskararen Egitura Eragilea Udal-sail bakoitzeko arduradunak		X	X

2.2.5. arloa: SORTZE-HIZKUNTZA

Hasierako egoera	Aurreikuspena	Aldea		
% 51	% 60	% 9		
Arloaren balorazio eta aurreikuspen kualitatiboak				
Egoera. Langileen euskara gaitasuna eta euskararekiko atxikimendua handiak dira, baita arduradun politikoena ere. Hala izanda ere, gaztelaniaz lan egiteko joera gailentzen da askotan (bereziki, idatzizko komunikazioan), eta lan-agirien sortze-hizkuntza gaztelania izaten da gehien bat.				
Egindakoak. Langileek dituzten lan-harremanetan euskararen presentzia eta erabilera bermatzeko, hizkuntza-irizpideak onartuta daude, eta neurri batean, hauek betetzen dira, hutsuneak hutsune. Hori bermatze aldera, urteetan zehar langileei zenbait baliabide eskaini zaie beren lana euskaraz egin dezaten: trebakuntza, dokumentuen estandarizazioa, zuzenketak...				
Indarguneak. Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileen hizkuntza-gaitasuna ona da. Horrez gain, langileen euskararekiko atxikimendua ere ez da txikia. Beraz, badaude agiriak euskaraz sortzeko aldeko baldintzak. Ezin dugu ahaztu, era berean, Durangoko Udalak erronka estrategikotzat hartu duela Udala euskararentzat arnasmune funtzionala izatea, eta beraz, euskara lan-hizkuntza izan dadin urrats sendoak emango ditu.				
Zer hobetuak. Gaitasuna eta atxikimendua handiak izanda ere, hainbatetan gaztelaniarekiko joera gailentzen da (bereziki, idatzizko komunikazioan). Hortaz, ezinbestekoa da joera edota zailtasun horiek identifikatu eta konpontzeko neurriak hartzea.				
Helburu estrategikoak: - Langileek beren lanean erabili behar dituzten idatziak euskaraz sortzeko baldintza egokiak eskaini: dokumentuen estandarizazioa landu eta Udalaren estilo liburua osatu, besteak beste.				
	Adierazleak (%)		Helburua	
	Hasiera	Aurreikuspena		Aldea
2.2.5.48._ Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	% 51	% 60	% 9	Langileek erabiltzen dituzten agirien azterketa egin, eredu estandarizatuak sortze aldera.

KUDEAKETA-PLANEKO EKINTZAK:

ADIER.	EKINTZAK	Faseak	Hartzaileak	ARDURADUNAK	2025	2026	2027
2.2.5.48.	A. Durangoko Udalak erabiltzen dituen idatzien azterketa egin (barneko zein kanpora begirakoak), eta horiek estandarizatzeko eta hizkuntza ofizial bietan emateko lanketa egin. Antzeman da hainbat udal-agiri eta eduki berrikusi eta egokitzeko beharra. Ez bakarrik hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, baina informazioaren irisgarritasunari dagokionez ere: - Idazkera argi eta sinplea - Edukiaren egokitasuna - Hizkera inklusiboaren beharra - Etab.	1. Udal-agirien eta informazio-euskarrien azterketa egin eta egokitu beharrekoen lehentasunak finkatu. 2. Antzemandako egokitzeko agirien estandarizazioa egiteko egitaraua finkatu. 3. Lehentasunen arabera, antzemandako egokitzeko agirien estandarizazioa egin, langile arduradunekin elkarlanean.	Durangoko herritarrak Sektore publikoko erakundeak Sektore pribatuko erakundeak Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Udal Euskaltegia Euskararen Egitura Eragilea Udal-sail bakoitzeko arduradunak Udal langile eta ordezkari guztiak		X	X
2.2.5.48	B. Udalaren Estilo Liburua landu. Durangoko Udalari dagozkion hizkuntza-irizpide eta hizkuntza-klausula berriak behin onartuta, eta zenbait dokumenturen estandarizazioa behin landuta, Udalaren komunikaziorako baliabide horiek guztiak bilduko dituen estilo liburua landuko dugu, langileen eguneroko lan-jardunean eraginkor eta	1. Hizkuntza-irizpide eta hizkuntza-klausula berriak adostu eta onartu. 2. Langileekin hizkuntza-trebakuntza landu.	Udal langile eta ordezkari guztiak	Euskara Saila Udal Euskaltegia			X

	lagungarri izateko helburuarekin. Besteak beste, honakoak jasoko ditugu bertan: - Idazkera argi eta sinplea erabiltzeko aholkuak - Edukiaren egokitasuna - Hizkera inklusiboa - Laneko ohiko zalantzak - Hizkuntza irizpide laburtuak - Hizkuntza-klausula laburtuak - Udal jardunean erabiltzen diren formulak. Eskuliburu honen helburua langileei egunerokoan euskaraz ekoizten laguntzea eta lan hori erraztea izango da.	3. Dokumentuen estandarizazioa landu. 4. Landutako guztia labur bilduko duen estilo liburua osatu eta langileen eskura jarri.					
--	---	---	--	--	--	--	--

8. Ekintzen kronograma urtez urte

URTEAK		2025	2026	2027
1. ardatza: KUDEAKETA				
1.0.1. ARLOA: Euskararen kudeaketa orokorra				
1.0.1.1.	A._Euskararen Egitura Eragilea osatu.			
1.0.1.2.	B._Adostutako plan estrategikoaren, kudeaketa-planen eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egin.			
1.0.1.2.	C._Durangoko Udalaren Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak eta Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Araudia egokitu eta eguneratu.			
1.0.1.2.	D._Udal-sailetan esku-hartze indibidualizatuak egin: sail eta atalen araberrako egoerak aztertu, konpromisoak adostu eta lanketak egiteko.			
1.0.1.2.	E._Durangoko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako langileen lanpostu-zerrendako datuak eguneratu: hizkuntza-eskakizunak, derrigortasun-datak, hizkuntza-gaitasuna, etab.			
1.0.1.3.	E._Aholkularitza eta laguntza teknika eman proiektuetako hizkuntza-inpaktua neurtzeko: Durangoko Udalaren ardurapeko egitasmo, zerbitzu eta jardunbideek euskararen indarberritzean duten eragina neurtu eta neurri zuzentzaileak inplementatu.			
1.0.2. ARLOA: Lidergoa				
1.0.2.6.	A._Plan estrategikoko adierazleen datuak biltzeko informazio-sarea osatu eta abian jarri.			
1.0.3. ARLOA: Langileak				
1.0.3.7.	A._Durangoko Udaleko langileak euskararen normalizazio-prozesuaz informatu: informazio-ekimenak aurrera eraman eta horretarako euskarri egokiak sortu.			
1.0.3.7.	B._Langile berrientzako harrera-plana diseinatu eta abian jarri.			

1.0.3.11.	C._Langileek Euskararen Erabilera Planaren parte izan daitezen, sentsibilizazio- eta sustapen-ekintzak antolatu.			
1.0.4. ARLOA: Hizkuntza-gaitasuna				
1.0.4.12. 1.0.4.13. 1.0.4.14.	A._Itzulpen-politika berria diseinatu eta abian jarri.			
1.0.4.12. 1.0.4.13. 1.0.4.14.	B._Udal-langileentzako euskararen alorreko berezko prestakuntza eskaini.			
1.0.4.12. 1.0.4.13. 1.0.4.14.	C._Udal-langileen lan-jardunen eta funtzio komunikatiboen azterketa egin, euskararen alorrean dituzten beharrak identifikatze aldera.			
1.0.5. ARLOA: Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa				
1.0.5.15.	A._Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia herritarrei eta interes-taldeei komunikatzeko kanpainak egin.			
1.0.6. ARLOA: Hizkuntza-klausulak				
1.0.6.17.	A._Kontratuetan txertatu beharreko hizkuntza-klausulak eguneratu.			
1.0.6.18.	B._Dirulaguntza eta hitzarmenetan txertatu beharreko hizkuntza-klausulak eguneratu.			
1.0.6.19.	C._Kontratuetan txertatutako hizkuntza-klausulei jarraipena egiteko prozedura zehaztu eta inplementatu.			
2. ardatza: ERABILERA				
2.1. EREMUA: ZERBITZU-HIZKUNTZA				
2.1.1. ARLOA: Irudia				
2.1.1.21. 2.1.1.22. 2.1.1.23. 2.1.1.24.	A._Durangoko Udalaren irudiaren barneko elementuetako bakoitzean zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta balizko ez betetzeak zuzendu.			
2.1.2. ARLOA: Herritarrekiko harremanak				

2.1.2.25. 2.1.2.26. 2.1.2.27. 2.1.2.28. 2.1.2.29. 2.1.2.30. 2.1.2.31.	A._Durangoko Udalaren herritarrekiko harremanen barneko elementuetako bakoitzean zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta balizko ez betetzeak zuzendu.			
2.2. EREMUA: LAN-HIZKUNTZA				
2.2.1. ARLOA: Barne-harremanak				
2.2.1.33. 2.2.1.35. 2.2.1.38.	A._Durangoko Udalaren barne-harremanetan zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta balizko ez betetzeak zuzendu.			
2.2.2. ARLOA: Kanpo-harremanak				
2.2.2.40.	A._Durangoko Udalaren kanpo-harremanetan zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta balizko ez betetzeak zuzendu.			
2.2.3. ARLOA: Prestakuntza				
2.2.3.43.	A._Langileei eskaintzen zaien prestakuntza orokorra arautzeko jarraibideak sortu eta inplementatu.			
2.2.3.43.	B._Udal-langileentzako euskararen alorreko berezko prestakuntza eskaini.			
2.2.3.45.	C._Udal-langileen lan-jardunen eta funtzio komunikatiboen azterketa egin, euskararen alorrean dituzten beharrak identifikatze aldera eta trebatze-egitarau indibidualizatua eskaintze aldera.			
2.2.4. ARLOA: Baliabide informatikoak				
2.2.4.46. 2.2.4.47.	A._Langileen esku jartzen diren baliabide informatikoen inbentarioa egin, eta denak euskaraz eskaintzeko plangintza zehaztu.			
2.2.5. ARLOA: Sortze-hizkuntza				
2.2.5.48.	A._Durangoko Udalak erabiltzen dituen idatzien azterketa egin (barneko zein kanpora begirakoak), eta horiek estandarizatzeko eta hizkuntza ofizial bietan emateko lanketa egin.			
2.2.5.48.	B._Udalaren Estilo Liburua landu.			

9. Planaren jarraipena

Durangoko Udalean Euskararen Erabilera Indarberritu eta Normalizatzeko Plan Estrategikoa diseinatu, kudeatu eta jarraipena egingo duen organoa eratu da: Durangoko Udalean Euskararen Erabilera Indarberritzeko Egitura Eragilea (Euskararen Egitura Eragilea).

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aholkatu bezala, euskararen erabilera erakundeetan normaltasunez, eraginkortasunez eta zeharkakotasunez indarberritu eta normalizatzeko, ezinbestekoa da bere kudeaketa sistematizatzea eta erakundearen ohiko kudeaketan zeharkakotasunez txertatzea. Horretarako, giltzarri da euskararen erabileraren kudeaketa Durangoko Udalaren kudeaketan txertatzea, eta diagnostikoa egiteaz, horretan oinarritutako euskara planaren diseinuaz eta kudeaketaz, eta horren guztiaren jarraipena egiteaz arduratuko den organo sendo, eraginkor eta erabakitzailea osatzea.

a) Euskararen Egitura Eragilearen helburuak

Durangoko Udalean euskararen erabileraren indarberritze eta normalizaziorako erreferente izango den egitura eragilearen helburuak ondokoak dira:

- Durangoko Udalean euskararen erabilera efektiboki bermatu eta sustatzeko plangintza egokia diseinatu, kudeatu eta berorri jarraipena egitea; betiere, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean eta ezarritako eskakizun eta bide-orriak kontuan hartuta.
- Euskararen Egitura Eragileak euskararen erabileraren alorrean Durangoko Udalaren bisioa zehaztuko du, eta hori lortzera bideratutako prozesuaren diseinu eta kudeaketaz arduratuko da.
- Durangoko Udalaren Euskararen Erabilera Planaren arduradun eta erantzule izango da, horren etengabeko jarraipena eginez; eta beharrezkoa denean, neurri zuzentzaileak aplikatuz.

b) Euskararen Egitura Eragileak Durangoko Udalean beteko duen lekua

Euskararen Egitura Eragilea Durangoko Udalean txertatutako kide anitzetako organo gisa eratuko da formalki; beraz, erabakitzeko, proposatzeko, aholku emateko, jarraipena egiteko edo kontrolatzeko administrazio-eginkizunak esleituko zaizkio.

c) Organoaren osaera eta organoko burua nahiz gainerako kideak izendatzeko oinarri hartutako irizpideak

Ondorengoak dira Euskararen Egitura Eragilearen kideak izendatzeko oinarri hartutako irizpideak:

- Gutxi gorabehera 10-12 kidez osatuta egotea.

- Parte-hartzaile guztiek euskara ulertzeko gaitasuna izatea.
- Generoaren ikuspegitik talde orekatua izatea.
- Talde anitza izatea; hau da, zerbitzu eta atal guztiak ordezkaturuta egotea.
- Erakundearen ikuspegi eta ezagutza zabala duten ordezkariak egotea.
- Udal atal guztietako ordezkariaren bat egotea, arduradun funtzioa duena.

Irizpide hauek kontuan hartuta, hauek izango dira kideak eta beren ordezkariak:

- Mireia Elkoroiribe (alkatea): Euskararen Egitura Eragilearen burua.
- Paule Sanchez (Euskara zinegotzia): Euskararen Egitura Eragilearen ordezkari burua.
- Jesica Ruiz (Herrigintzako arduradun politikoa)
- Teresa Oleaga (idazkaria)
- Jokin Palacio (kontu-hartzailea)
- Iratxe Pikaza (Giza Baliabideetako arduraduna)
- Igor Zorrakin (Bulego Teknikoko arduraduna)
- Kety Arrabal (Berdintasun teknikaria)
- Natalia de Naveran (Turismo teknikaria)
- Arantza Maiztegi (Gizarte Ekintzako arduraduna)
- Nerea Erauzkin (Informatika Ataleko arduraduna)
- Amaia Frontaura (udaltzainburua)
- Maider Larrañaga (Astarloa Kulturgintzako ordezkaria)
- Iñaki Inza (Durango Kirolakeko ordezkaria)
- Garbiñe Andrinua/Maite Sanz (Udal Euskaltegiko ordezkaria)
- Iker Ruiz de Alegria (Bartolome Ertzilla Musika Eskolako ordezkaria)
- Amaia Aranaga (Euskara eta Hezkuntza sailetako arduraduna eta Kultur Ekintzako koordinatzailea): Euskararen Egitura Eragilearen ordezkari idazkaria.

d) Esleitzen zaizkion eginkizunak

Euskararen Egitura Eragilearen egitekoak ondokoak dira, besteak beste: erakundearen hizkuntza-helburuak zehaztea, helburu horiek lortzera bideratutako estrategia antolatzea, plan estrategikoa eta kudeaketa-planak diseinatzea eta adostea, ekintzen proposamenak lantzea, planak kudeatzea, eta hauei jarraipena egitea.

e) Biltzeko maiztasuna

Organo hau urtean lautan bilduko da, gutxienez (hiru hilean behin): urtarila, maiatza, iraila eta abendua.

f) Funtzionamendurako kreditu- zuzkidura

Ez da beharrezkoa izango funtzionamendurako kreditu-zuzkidurarik.

10. Euskararen erabileraren diagnostikoa elikatzeko prozedura: informazio-sarea

ADIERAZLEA	GALDERA	NORK (Arduraduna)	NOLA NEURTU	NOIZ NEURTU?
KUDEAKETA				
EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA				
Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	Erakundeak badago plan estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituraturik? Eta baiezkoan, nolako da sistema hori?	Euskararen Egitura Eragilea	GALDERA KUALITATIBOA Adierazi behar da erakundeak plan estrategikoa eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituraturik duen, eta, baiezkoan, nolako den sistema hori. Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.
Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	Jarraipen sistematikoa egiten zaie plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei?	Euskararen Egitura Eragilea	GALDERA KUALITATIBOA Adierazle honen bidez aztertuko da indarrean dauden plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei jarraipen sistematikorik egiten zaien; hau da, aurreikusitako ekintzak eta neurriak gauzatzen diren, dagokionean ekintza horien zein hizkuntza-irizpideen betetze-maila ebaluatzen den eta ondoriozko egokitzapenik egiten den. Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.
Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).	Aztertzen da erakundearen jardura eta politikek nola eragiten duten euskararen indarberritzean? Eta, baiezkoan, aurreikusten dira neurri zuzentzaileak jardura eta politika hauek euskararen indarberritzean positiboki eragin dezaten? (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN)	Euskararen Egitura Eragilea	GALDERA KUALITATIBOA Adierazle hau neurtzeko, aztertuko da erakundeak bere politika eta jardueren hizkuntza-inpaktua sistematikoki baloratzen duen ala ez, eta euskararen indarberritzea sustatzeko behar diren neurri zuzentzaileak aurreikusten eta	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.

			aplikatzen dituen. Horretarako, erakundeak zein neurritan aztertzen duen bere jarduerak hizkuntzen arteko botere-harremanetan duten eragina eta hori egiteko prozedura erregularra duen egiaztatuko da. Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	
LIDERGOA				
Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	Zenbat bilera egiten ditu urtean zehar erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planen kudeaketarako? Zenbaterainokoa izan da arduradun politiko zein teknikoek bertaratzea antolatutako bilera horietara? Zenbateraino hartzen dute parte erakundeko arduradun politiko zein teknikoek prozesu osoan; hau da, plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinu, garapen eta jarraipenean?	Euskararen Egitura Eragilea	EHUNEKO-TARTEAK AUKERATZEKO GALDERAK Adierazle honekin neurtuko da arduradun politiko zein teknikoek parte-hartzea zenbaterainokoa den plan estrategiko eta kudeaketa-planen lanketan. Egindako bileretara bertaratzea eta prozesuan izandako parte-hartzea neurtuko da. Bertaratzea bileretako akten bidez edo beste bide batzuetatik kalkula daiteke. Parte-hartze motak, aldiz, erakundearen euskararen normalizazio prozesuan parte hartzen duten eragileek ezagutzen eta pertzepzioan oinarrituta (balorazio fitxak, galdetegiak... erabiliz).	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.
Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	Plan estrategiko eta kudeaketa-planen helburuak betetze aldera, nolako proaktibotasunarekin jokatzeko erakundeko arduradun politikoek eta teknikoek?	Euskararen Egitura Eragilea	EHUNEKO-TARTEAK AUKERATZEKO GALDERAK Adierazle honek esango digu erakundeko arduradun politiko zein teknikoek nolako jarrera daukaten plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak lortzeki begira: jarrera aktiboa ote duten hizkuntzen kudeaketa	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.

			egiterakoan (hau da, erakundearen ordezkari gisa euskararekiko jarrera aitzindaria erakusten duten): lidergoa, inplikazioa, euskaraz lan egiten duten eta lan eragiten dieten beren lankide guztiei, neurri zuzentzailerik ote dagoen...	
Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.	Dagozkien arduradunek biltzen dituzte plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako adierazleei buruzko datuak?	Euskararen Egitura Eragilea	EHUNEKO-TARTEAK AUKERATZEKO GALDERAK Adierazle hau neurtzeko, plan estrategiko eta kudeaketa-planetako adierazleei buruzko datuak jasotzen diren ala ez egiaztatuko da (<u>taula honetan adierazitakoa</u>), aurrez ezarritako metodologiari jarraituz (zer, nork, nola eta noiz jaso). Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.
LANGILEAK				
Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	Langileei ematen zaie erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruzko informaziorik?	Euskara Saila	GALDERA KUALITATIBOA Neurtuko da langileei plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruzko azalpenik ematen zaien. Komunikazioari buruzko adierazlea da, finean: plan estrategiko, kudeaketa-plan eta irizpideen berri ematen den erakunde barnean (bilera, zirkular, barne-komunikazio, langile berrientzako hizkuntza harreraren bidez...). Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.
HIZKUNTZA-GAITASUNA				

Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	Erakundeko arduradun politiko nagusietatik, zenbat dira gai postuaren funtzioak euskaraz betetzeko?	Euskararen Egitura Eragilea	EHUNEKO-TARTEAK AUKERATZEKO GALDERAK Adierazle honen helburua da ezagutzea erakundeko arduradun politikoak zer neurritan diren gai beren postuaren funtzioak euskaraz betetzeko. Erakundeko arduradun politikoak hartu (zinegotziak, sailburuak, zuzendariak...), eta adierazi horietatik zenbat diren euskaraz lan egiteko gai. Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.
EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA				
Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta gainerako interes-taldeei.	Erakundeak komunikatzen die herritarrei eta gainerako interes-taldeei euskararen erabilera sustatzeko abian duen estrategia?	Euskararen Egitura Eragilea	GALDERA KUALITATIBOA Adierazle honek neurtuko du erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia zein neurritan arte komunikatzen dien herritarrei eta gainerako interes-taldeei (beste administrazio publikoak, hornitzaileak, elkarteak, enpresa pribatuak, etab.). Azken finean, adierazle honen bitartez jakingo dugu erakundeak euskararen eskaintza aktiboa egiten duen ala ez, eta egiten badu, zein baliabide erabiltzen duen horretarako. Hau da, erakundeak euskararen aldeko apustu sendoa eta zintzoa egin du, konpromiso bat hartu du, eta hala jakinarazten die interes-taldeei, euskara erabiltzeko gonbidapena luzatuz. Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.

Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeke ekimenetan parte hartzen du.	Zenbatetan parte hartu du erakundeak azken hamabi hilabeteetan beste hizkuntza-esperientzia eta praktika on batzuk ezagutzeko eta euskararen normalizazioaren alorreko ezagutza jasotzeko antolatu diren ekimenetan? Zenbatetan parte hartu du erakundeak azken hamabi hilabeteetan bere hizkuntza-esperientzia eta praktika onak ezagutzera emateko ekimenetan?	Euskara Saila	EHUNEKO-TARTEAK AUKERATZEKO GALDERAK Adierazle honen bidez jasoko da ea erakundeak parte hartzen duen euskararen erabileraren normalizazio-eta biziberritze-arloari dagozkion beste esperientzia eta praktika on batzuk ezagutzeko eta euskararen normalizazioaren alorreko ezagutza jasotzeko askotariko ekimenetan (jardunaldiak, lan-saioak, beste erakunde batzuk bisitatu, topaketak, mintegiak, Bikain ebaluazioak, AriGara plataforma...). Era berean, jasoko da erakundeak berak parte hartzen duen hizkuntzaren kudeaketa-praktikak eta ezagutza partekatzeke ekimenenetan. Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.
HIZKUNTZA-KLAUSULAK				
Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	Zenbat kontratuk dituzte txertatuta hizkuntza-klausulak?	Kontratazio Atala	LAGIN BIDEZ Lagin bidez egingo da behaketa: hilabete bakoitzean sinatutako lehen kontratua hartu, eta aztertuko da ea hizkuntza-klausulak txertatu diren. Gutxienez, hamabi kontratu hartuko dira laginean (hilabete batean ez badago halakorik, aurreko hilabeteko beste bat hartuko da); kopuru handiagoa ere har daiteke oinarritzat. Erakunderen batek sinatutako kontratu kopurua ez bada hamabira heltzen, sinatu dituen kontratu guztien arabera egin beharko du kalkulua.	Hilabete bakoitzaren hasieran.

Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	Zenbat dirulaguntza eta hitzarmenek dituzte txertatuta hizkuntza-klausulak?	Euskara Saila	LAGIN BIDEZ Adierazle honen bidez aztertuko da dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausularik txertatzen den, horien xedea diren jarduerak herritarrekin harreman zuzena izatea dakartenean, edo haien objektuan hizkuntzaren erabilerak eragin handia duenean. Lagin bidez egingo da behaketa: hilabete bakoitzean sinatutako lehen dirulaguntza eta hitzarmena hartu, eta aztertuko da ea hizkuntza klausulak txertatu diren. Gutxienez, bien artean hamabi dirulaguntza eta hitzarmen (ahal delarik, sei eta sei) hartuko dira kontuan laginketarako (hilabete batean ez badago halakorik, aurreko hilabeteko beste bat hartuko da). Kopuru handiagoa ere har daiteke oinarritzat.	Dirulaguntza eta hitzarmen lanketa egiten denean: urtaril-martxoa.
Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	Jarraipen sistematikoa egiten al zaie kontratuetan jasotako hizkuntza-klausulei? Jarraipen sistematikoa egiten al zaie dirulaguntza eta hitzarmenetan jasotako hizkuntza-klausulei?	Euskara Saila	GALDERA KUALITATIBOA Adierazle honen bidez ez dugu ezagutu nahi zenbat kontratari egiten zaien txertatutako hizkuntza-klausulen jarraipena. Asmoa da ezagutzea erakundeak kontratuen hizkuntza-klausulei jarraipen sistematikorik egiten dien: ea egiaztatu den hizkuntza-klausula horiek bete diren, hizkuntza-klausulak ez betetzeari buruzko kexak kontuan hartu diren, ez betetzeak zuzentzeko neurriak hartu diren, etab. Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.

Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntzaklausulen betetze-mailari.	Jarraipen sistematikoa egiten al zaie dirulaguntza eta hitzarmenetan jasotako hizkuntza-klausulei?	Euskara Saila	GALDERA KUALITATIBOA Adierazle honen bidez ez dugu ezagutu nahi zenbat dirulaguntza eta hitzarmeni egiten zaion txertatutako hizkuntza-klausulen jarraipena. Asmoa da ezagutzea erakundeak dirulaguntza eta hitzarmenen hizkuntza klausulei jarraipen sistematikorik egiten dien; beti ere, horien xedea diren jarduerak herriarrek harreman zuzena izatea dakartenean, edo haien objektuan hizkuntzaren erabilerak eragin handia duenean. Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.
ERABILERA				
ZERBITZU-HIZKUNTZA				
IRUDIA				
Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.	Zein hizkuntza ofizialetan dago errotulazio finkoa? Zein hizkuntza ofizialetan daude aldi baterako errotuluak eta ikus-entzunezkoak?	Euskara Saila	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Behaketa bidez kalkulatu da ea erakundearen egoitzan edo egoitzetan, barruan zein kanpoan, herriarren joan-etorri handieneko espazioetan dauden errotuluak edo herriarrei zuzendutako elementuak zein hizkuntzatan dauden: identifikazio-seinaleak, ahots-mezu automatikoak, panel elektronikoak... Gutxienez, erakunde txikietan, bost errotulu finko eta bost behin-behineko aztertuko dira. Ikus-entzunezkoak behin-behineko elementutzat hartuko dira. Errotuluen lagin zabalagoa ere erabil	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.

			daiteke, erakundearen tamaina zein den kontuan izanda.	
Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.	Zein da hizkuntza ofizial bakoitzaren presentzia erakundearen argitalpenetan? Zein da hizkuntza ofizial bakoitzaren presentzia erakundeak zabalduko iragarki eta publizitatean?	Komunikazio Atala Euskararen Egitura Eragilea	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Behaketa bidez egingo da neurketa: gutxienez, erakundearen azken bost argitalpenak eta azken bost iragarki eta publizitate-kanpainak hartu, eta zein hizkuntza ofizialetan dauden aztertu. Galdera bakoitzerako aztertutako elementuen batez bestekoa kalkulatu da, bai euskaraz, bai ele bietan, baita gaztelaniaz argitaratutakoetan ere. Elementu bakoitzerako lagin zabalagoa ere erabil daiteke.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.
Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.	Informazioaren zer zati eman da euskaraz eta zer zati gaztelaniaz erakundearen agerraldietan (aurkezpenak, prentsurrekoak...)?	Komunikazio Atala	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Behaketa bidez kalkulatu da: jasoko da azken bost agerraldietan (aurkezpenak, batzarrak, prentsurrekoak...) erakundeko kideek (langileak nahiz ordezkari politikoak) zenbat informazio-unitate eman duten euskaraz eta zenbat gaztelaniaz, hau da, azalduko informazio KOPURUA neurtu behar da, eta ez hitz egindako denbora. Gutxienez bost aztertu behar dira (erakundeak bost agerraldi baino gutxiago egin baditu urtean, egin diren guztiak). (Beti ere erakundearen izenean eta maila instituzionalean egindako ekitaldi/agerraldiak).	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.

Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak.	Zein hizkuntza ofizialetan argitaratzen dira webguneko albisteak? Zein hizkuntza ofizialetan daude webgunean herritarren eskura dauden dokumentu-ereduak? Zein hizkuntza ofizialetan daude webgunearen bidez herritarrek egin ahal dituzten tramiteak? Zein hizkuntza ofizialetan daude hedapen handieneko sare sozialean argitaratzen diren edukiak?	Komunikazio Atala	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Batetik, webguneari dagozkionak: behaketa bidez aztertuko da zein hizkuntza ofizialetan dauden eskuragarri azken bost albisteak, herritarren eskura dauden lehen bost dokumentu-ereduak eta online bidezko lehen bost tramiteak. Bestetik, sare sozialak: behaketaren bidez aztertuko da zein hizkuntza ofizialetan dauden hedapen handieneko sare sozialean argitaratutako azken bost edukiak.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.
HERRITARREKIKO HARREMANAK				
Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	Zein izan da hizkuntza ofizial nagusia erakundeak herritarrentzat antolatutako azken bost ekitaldietan? Zein izan da hizkuntza ofizial nagusia erakundeak antolatutako azken bost ikastaroetan?	Euskara Saila	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Ekitaldiak eta ikastaroak Lagin bidez egingo da neurketa: erakundeak antolatutako azken bost ekitaldietan (aurkezpenak, ate zabaleko jardunaldiak, eztabaida-foroak, lehiaketak, herritarrekin egindako batzordeak, bisita gidatuak, erakusketak, hitzaldiak...) zein izan den erabilera nagusiko hizkuntza ofiziala (hizlarien jarduna eta horretarako erabilitako materiala hartuko da aintzat, ez herritarrena). Azaldutako informazio kopuruaz ari gara, ez hizkuntza ofizial batean edo bestean hitz egindako denboraz.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.

Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	Zein hizkuntza ofizialetan daude herritarrentzako idatzizko komunikazioak?	HAZ	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Behaketa egingo da lagin bidez: hilabete bakoitzean herritarrei bidalitako lehen bi agiriak hartuko dira irteera erregistrotik edo horretarako erakundeak aurreikusitako beste bide batetik, eta ikusiko da zein hizkuntza ofizialetan dauden. Gauza bera egingo da herritarrek eskuragarri dituzten idatziekin edota dokumentuekin (formularioak, informazio-orriak...). Hilabete batean ez badira bi agiri bidali, aurreko hilabeteko hirugarrena hartuko da. Era berean, herritarrentzako informazio-guneetan haien eskura jarritako dokumentu berririk ez badago, ez da neurketarako kontuan hartuko.	Hilabete bakoitzaren hasieran.
Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	Zein hizkuntza ofizialetan erantzuten zaie herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei?	HAZ	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Behaketa egingo da lagin bidez: hilabete bakoitzean herritarrek euskaraz aurkeztutako lehen bi dokumentuak hartu, eta aztertu erantzuna zein hizkuntza ofizialetan eman dien erakundeak. Hilabete batean ez badira euskarazko bi dokumentu aurkeztu, aurreko hilabeteko hirugarrena edota laugarrena hartuko dira. Lagina handitu daiteke, hilabete bakoitzeko bi dokumentu baino gehiago aztertuta.	Hilabete bakoitzaren hasieran.

Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.	Zein hizkuntza ofizialetan daude herritarrengandik jasotako dokumentuak?	HAZ	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Behaketa bidez egingo da neurketa: erregistroan edo horretarako erakundeak aurreikusitako beste modu batean behatuko da hilean herritarrek aurkeztutako lehen bi dokumentuak zein hizkuntza ofizialetan dauden. Hilabete batean ez badaude herritarrek aurkeztutako bi dokumentu, aurreko hileko hirugarrena edota laugarrena hartuko dira neurketarako.	Hilabete bakoitzaren hasieran.
LAN-HIZKUNTZA				
BARNE-HARREMANAK				
Lan-bilerak euskaraz egiten dira.	Zein hizkuntza ofizialetan egiten dira lan bilerak zure erakundeak?	-	*Ez daukagu horretarako neurgailurik; beraz, erakundeak ez du galdera erantzun behar.	-
Erakundeak euskaraz gutxienez lantzen ditu ofizioz abiatutako prozedura administratiboaren barne izapideak, betiere hartzailea ezaguna ez den kasuetan.	Zein hizkuntza ofizialetan landu dira aztertutako prozedura administratiboak (dirulaguntzak, kontratuak, zehapenak, baimenak...), azken urtean?	Idazkaritza	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Behaketa bidez egingo da kalkulua, honela: hilean amaitutako lehen prozedura administratiboaren barne prozedurari lotutako dokumentazioa hartu eta zein hizkuntza ofizialetan landu den aztertuko da. Gutxienez hamabi prozedura hartuko dira kontuan; hilabete batean ez badago halakorik, aurreko hileko bigarrena hartuko da. Lagina handitu daiteke, hamabi prozedura baino gehiago kontuan hartuta.	Hilabete bakoitzaren hasieran.
KANPO-HARREMANAK				

Sektore publikoko erakundeei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	Zein hizkuntza ofizialetan daude sektore publikoko beste erakundeei, azken urtean, bidalitako dokumentuak?	HAZ	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Behaketa egingo da lagin bidez: azken urtean, hilabete bakoitzean sektore publikoko erakundeei bidalitako lehenengo bi dokumentuak hartuko dira irteera erregistrotik edo horretarako erakundeak aurreikusitako beste bide batetik, eta aztertuko da zein hizkuntza ofizialetan dauden. Hilabeteren batean ez badago halakorik, aurreko hileko hurrengo(k) hartuko d(ir)a. Lagina handitu daiteke, hilean bi agiri baino gehiago hartuz.	Hilabete bakoitzaren hasieran.
Enpresa pribatuei euskaraz edo ele bietan bidaltzen zaizkie idatzizko komunikazioak.	Zein hizkuntza ofizialetan daude erakundeak harremana duen enpresei (hornitzaileak, finantza-erakundeak, erakunde kolaboratzaileak, zerbitzu-erabiltzaileak...) azken urtean bidalitako dokumentuak?	HAZ	BEHAKETA ETA LAGIN BIDEZ Behaketa egingo da lagin bidez: azken urtean, hilabete bakoitzean enpresa pribatuei bidalitako lehenengo bi dokumentuak hartuko dira irteera erregistrotik edo horretarako erakundeak aurreikusitako beste bide batetik, eta aztertuko da zein hizkuntza ofizialetan dauden. Hilabeteren batean ez badago halakorik, aurreko hileko hurrengo(k) hartuko d(ir)a. Lagina handitu daiteke, hilean bi agiri baino gehiago hartuz.	Hilabete bakoitzaren hasieran.
PRESTAKUNTZA				
Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	Erakundeak urtean eskaintako prestakuntza orokorretik, zenbatekoa da euskarazkoa?	Giza Baliabideak	Neurtuko da erakundeak langileei eskaintako prestakuntza orokorretik zenbat ikastaro eskaintzen diren euskaraz. Erakundeak berak beharren arabera antolatzen duen prestakuntza-	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.

			eskaintzaz gain, kanpoko beste erakunde batek (IVAP, Merkataritza-Ganbera edota EHU-UPV, esaterako) egindakoa ere neurtuko da atal honetan.	
Hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie langileei.	Langileei eskaintzen zaie euren lanpostuko zereginak euskaraz burutzen laguntzeko hizkuntza-trebakuntzarik?	Euskara Saila	GALDERA KUALITATIBOA Neurtuko da berariaz hizkuntzarekin lotutako trebakuntzarik eskaini ote duen erakundeak, bai ikastaroen bidez, bai bestelako formatuen bidez (trebakuntza-fitxak, pilulak...). Hizkuntza-trebakuntzat hartu behar dira langileak euren lanpostuko zereginak euskaraz burutzen laguntzeari begirako prestakuntza, eta ez euskara-maila bat egiaztatzeko ikastaroak. Erantzun-aukeretan dago zehaztuta.	Urtean behin, plan estrategikoaren jarraipena egiten denean.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

